

Juan Ulezuri eleberria argitaratu dau Jürgen Lange zeberioztarrak

12. orrialdea

Mendi Lasterketen Txapelketea irabazi dau Onditz Iturbek

Hilaren 3an jokatu zan Araian Mitxarro Bira Trail lasterketan Euskadiko Mendi Lasterketako Txapelketea, sano eguraldi txarragaz eta Onditz Iturbe izan zan irabazlea. Taldekako txapela be igorretarraren taldeak irabazi eban, Aiararendiko korrikalariak taldeak, hain zuzen be. **11. orrialdea**



Arratiako futbol taldeek hasikera itzela emon deutsie denporaldiari

10. orrialdea

Historiaurreko 5.000 urte kontetan dabe Gorbeian topautako aztarnek

Mendiganako dolmenaren indusketea hasi zan egiten 2001ean Agiri Arkeologia alkarteak eta 20 urte honeetan, Gorbeiak hainbat monumentu megalitiko eta beste aztamategi batzuen indusketak egin ditue. Urri bigarrenaren 9an, Gorbeiak Parketxeak antolatuta, Agiri alkarteko zuzendari teknikoak, Juan Carlos Quintanak, Epipaleolitiko sasoiko kokaleku bat eta Neolitiko sasoiko monumentu megalitiko biren barri emon eutsen ibilaldian parte hartu ebenei.

Arkeologoaren arabera, bertakoak garrantzi handiko aurkikuntzak dira, eta Bizkaian monumentu megalitikoak bakanak ziran oin arteko eretxia oker egoala frogatzen dabe. **8. eta 9. orrialdeak**



Musikeari dedikau gura deutso Udalak Ekomuseoa

Herritarren ekarpenak jasoteko fasean dago proiektua. Proiektuaren arabera, Ekomuseoa, musikara bideratuta egongo da eta erakusketak, musika laborategi bat, sormenerako espazioa, entsegu gelak eta ekitaldi musikalak egiteko espazioak izatea gura dau Arteako Udal gobernuak. **5. orrialdea**



ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

Osasun larrialdia bertan behera itxi dau Lehendakariak

Lehendakariak amaitutzat emon eban osasun larrialdia hilaren 7an publikautako dekretuaren bitartez, eta Labiren aholku batzordea desegin zan. Osasun larrialdia bertan behera itxita, neurri murriztaile gehienak kendu ziran. **7. orrialdea**



ARRATIA

Aurreko ikasturteko tailer batzuk errekuerauko ditu Ilgoranek

Hilaren 22an eta 23an, Artean egingo dan *Agroekofeminismo* tailerra izango da oingo ikasturteko Ilgoran Jabekuntza Eskolako lehenengo tailerra. Aurreko ikasturtean bertan behera geratu zanetako bat da. **6. orrialdea**



ARANTZAZU

Jai egitaraua prest sanfaustoak ospatuteko

Astegoienean ospatuko dabez jaiak Arantzazun. Zapatuan, Mugarri Bira mendi urtekerea, baba-jana eta Ein Go taldearen kontzertua egongo dira eta domekan, txistulariak, merkadua eta magia ikuskizuna. **5. orrialdea**



Literatura txokoa

BIHOTZ-BEGIETAN

Rimbaud etorri dok. Susako jentek berrargitaratu dau Lizardi. Zarauzko argitaletxe batek izan behar eban, zelan ez: han jaio zan Lizardi. Dana dala, bizimodu ia osoa Tolosan emon eban, bertako bankuan beharrea lehenengo, eta sare metalikoak egiten ebazan Perot lantegiko gerente gero. Pakita Izagirregaz ezkondu zan, eta lau seme-alaba euki ebazan. Baina gazte hil zan, eta horrek emon eutsan aura bat, araztasun bat, bere poesia baino harago joiana.


Euskerearen inguruan hausnarketa bat egiten dogun bako-txean Lizardiren ikutu bat dauka gure arrangureak gaur egun be: "Leen-leendani gure izkuntza landu izan ba'gendu, gogo-jardun

ta bear guzietarako erabiliz, gaur bereziko jakintza baten, bereziko elerti baten bidez gizadiak begiratze ta aipatze'aal-ginduzten!". Urregorriko orri bat emon eutsan gure literatura berbiztu barriari gazte, sano gazte, hil aurretik. Ordu atxina orrialde baltzak etorri ziran. Eta Lizardik Espainiako Gerra Zibilak orbandu eta mikaztu bako biografia dauka, eta era berean gure euskal kontzientziaren zati da.

Eta badinotsuet: oin Susakoek ekarri dabe gaurko euskerara estandarren grafiara *Bihotz-begietan*. Ariketa gatxa da egin dabena, ze ezer ikutu barik zaharbarritzea halako obra irudiz aberatsa, halako fresko sagradua gure letrentzat, ez da bat be

erraza. Josu Landa apartekoa da horretan eta badaki itzulpenak egin ahala barriro idazten idatzita dagoana, badaki kentzean eta emoten baina badaki, baita, ez interbenitzen: "Zure bazter,/ gurazko aberria,/ doa zoro/ ta (bertan ni) bultzia...".

Edizino hau lar ikutu bako Lizardi da. Bide barriak topau ebazan poeta izan zan, neologismoak eta honezkero ahaztu jakuzan esapide bikainak erabili ebazan. Memoria ariketa eder bat da edizino hau. Irakurten hasi eta konturatzen da ze inportantea izan zan gure literaturan Joan Maragall, Manuel Antonio, Frederic Mistral-lako Lizardi *forever young* hau.



Xabier Lizardi

Bihotz-begietan

Susa, 2021

Igor Estankona 104 orrialde

TELEFONO INTERESGARRIAK

Larrialdiak

Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00
SOS DEIAK 112

Guardiako farmaziak

09:00etatik 22:00etara

Urri bigarrenaren 11tik 17ra

Goikoetxea. Dima. Ugarana 33
Tel.: 94 673 70 54 eta 619 524 057

22:00etatik 09:00etara

Melero. Amorebieta-Etxano.

Urri bigarrenaren 18tik 24ra

Ibarrola. Zeanuri. Arregia kalea 1
Tel.: 94 673 93 95 eta 620 262 937

22:00etatik 09:00etara

Sarasketa. Amorebieta-Etxano.

Urri bigarrenaren 25etik 31ra

Ibarrola. Zeanuri. Arregia kalea 1
Tel.: 94 673 93 95 eta 620 262 937

22:00etatik 09:00etara

Iruarizaga. Amorebieta-Etxano.
Zeberioako ez dau guardiarik egiten.

Urte osoan. 22:00etatik 09:00etara

Ana Gometza. Francisco Kortabarria 2. Basauri.

Medikuak

Arantzazu: 94 600 74 63

Artea: 94 673 92 11

Areatza: 94 631 71 52

Bedia: 94 631 34 13

Dima: 94 680 19 74

Igorre: 94 600 74 63

Lemoa: 94 631 31 16

Ubide: 945 45 03 61

Zeanuri: 94 673 91 49

Zeberio: 94 648 01 85

Udaletxeak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 05

Areatza: 94 673 90 10

Bedia: 94 631 42 00

Dima: 94 631 57 25

Igorre: 94 631 53 84

Lemoa: 94 631 30 05

Ubide: 945 45 03 22

Zeanuri: 94 673 91 46

Zeberio: 94 648 10 79

Arratiako Udalen

Mankomunitatea 94 631 17 17 /

mankomunitatea.arratia@bizkaia.org

Gorbeialde Landa

Garapenerako Alkartea

94 631 55 25 / *gorbeialde@gorbeialdea.com*

Areatzako Parketxea 94 673 92 79

IKE 94 673 62 51 / *kulturetxea@igorre.net*

Euskotren 94 433 33 33 / *euskotren.eus*

Areatzako Notarriotza 94 673 92 26

Errota Fundazioa

688 854 543 / *info@errota.eus*

Arratiako Musika Eskola

94 631 73 52 / *www.arratiakomusikaeskola.eu*

Bizkaibus 94 612 55 55

3917 linea. Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri

Bilbotik. Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik 22:15era ordu. Jaiegunetan orduo 07:15etik 22:15era.

Zeanuritik. Lanegunetan: Lehenengo 05:00etan. Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era.

Orduo: 06:45etik 21:45era. Azken zerbitzua 22:00etan. Zapatuetan: Lehenengo 05:00etan. Orduo: 05:45etik 21:45era.

Jaiegunetan: 07:45etik 21:45era orduo.

3911 Linea. Bilbo-Galdakoa Ospitalea-Lemoa-Durango-Elorrio

Bilbotik. Lanegunetan: 07:00etatik

22:00etara orduo. Zapatu eta domeketan

Durangoraino.

Elorriotik. Lanegunetan 06:45etik 20:45era

orduro.

Durangotik. Lanegunetan: 07:10etik

21:10era orduo. Zapatuetan: 06:30etik

21:30era orduo. Jaiegunetan: 07:30etik

21:30era orduo.

3912 Linea. Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Durango-Ermua-Eibar

Bilbotik. Lanegunetan: 06:30etik 22:30era

orduro. Jaiegunetan: 07:30etik 22:30era

orduro.

Eibartik. Lanegunetan: 06:00etatik

21:00etara orduo. Zapatuetan: 06:20tik

21:20era orduo.

Jaiegunetan: 07:20tik 21:20era orduo.

3925 linea. Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide

Bilbotik. Lanegun, zapatu eta jaiegunetan, Otxandiora: 06:45etik 20:45era orduo.

Ubidera: 06:45etik 20:45era bi ordu behin.

Ubideetik. Lanegun eta zapatuetan:

06:45etik 20:45era bi ordu behin.

Jaiegunetan: 08:45etik 20:45era bi ordu behin.

* 08:45ean, 14:45ean eta 18:45ean urtetan

diran zerbitzuak Barazaren gelditzen dira.

Otxandiotik urtekerak. Lanegun eta

zapatuetan: 06:55etik 20:55era orduo.

Jaiegunetan: 08:55etik 20:55era orduo.

3927 linea. Bilbo-Lemoa-Zeanuri

(autopistatik)

Bilbotik. Lanegunetan: 07:00etatik

21:00etara orduo. Zapatu eta jaiegunetan ez

dago zerbitzurik.

Zeanuritik. Lanegunetan: 07:00etan lehena,

eta 08:15etik 21:15era orduo. Zapatu eta

jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

3928 linea. Artea-Zeberio-Ugao

Zeberiotik Ugaora. Lanegun eta

zapatuetan: 07:00, 08:20, 09:10*, 11:00;

11:45*, 14:10, 15:00, 16:10, 18:30*, 20:20.

*Basuriraino bakarrik.

Basauritik Zeberiora. Lanegun eta

zapatuetan: 10:00, 12:45*, 19:20.

*Artearaino bakarrik.

Ugaotik Zeberiora. Lanegun eta zapatuetan: 07:20, 08:40, 10:20, 11:20, 13:05, 14:30, 15:30, 16:30, 19:40, 20:40.

Arteatik Ugaora. Lanegun eta zapatuetan: 06:50, 08:00, 14:00, 16:00.

Ugaotik Artea. Lanegun eta zapatuetan: 13:05, 15:30, 20:40.

Igorretik Ugaora. Lanegun eta

zapatuetan: 07:55ean.

Ugaotik Igorre. Lanegun eta

zapatuetan: 07:20ean.

Zeberiotik Arrigorriagara. Jaiegunetan:

08:10, 11:10, 14:10, 17:10, 20:10.

Arrigorriatik Zeberiora. Jaiegunetan:

10:20, 13:20, 16:20, 19:20.

La Union 94 427 11 11

Bilbo-Gasteiz

Lanegunetan: Ubidekoak 09:15ean urtetan

dau eta Otxandioakoak 16:00etan. Zapatuetan:

Ubidekoak 09:00etan urtetan dau Bilbotik.

Jaiegunetan: Ubidekoak 10:00etan urtetan

dau eta Otxandioakoak 18:30ean.

Gasteiz-Bilbo

Lanegunetan: Ubidekoak 09:00etan urtetan

dau Gasteizetik eta Otxandioakoak 10:30ean.

Zapatuetan: Otxandioakoak 10:30ean urtetan

dau Gasteizetik.

Jaiegunetan: Ubidekoak 16:30ean urtetan dau

Gasteizetik.

Argitaratzailea: ZERTU Kultur Elkartea.
Helbidea: Herriko Plaza 24, 48142 Artea. **Telefonoa:** 94 673 90 13.
Helbide elektronikoa: *begitu@begitu.eus*
Webgunea: *www.begitu.eus*
Zuzendaria eta publizitate arduraduna: Iñigo Iruarizaga.
Telefonoa: 94 673 90 13 eta 649 979 115. E-posta: *inigoirua@begitu.eus*
Erredakzino burua: Beatriz Azpiri. **Telefonoa:** 94 673 90 13 eta 649 979 112. E-posta: *beazpiri@begitu.eus*
Webgunearen arduraduna: Asier Abrisketa. **Telefonoa:** 94 673 90 13 eta 626 647 923. E-posta: *asierabrisketa@begitu.eus*
Maketazinoa: Beatriz Azpiri eta Iñigo Iruarizaga.
Banaketea: Iraia Herrero (Arantzazu, Artea eta Ubide), Ibai Milikua (Areatza), Unai Agorreta eta Xabier Beitia (Bedia eta Lemoa), Amaia Uriarte (Dima), Iker Perez eta Eguzkiñe Zuluaga (Igorre), Iratxe Arribas (Zeanuri), eta Andoni Brizuela (Zeberio).
Tiradea: 7.300 ale. **Inprimategia:** Iparragirre Editoriala.
Facebook: Begitu Aldizkaria. **Twitter:** @BegituEus. **Instagram:** @begitu.eus
Ale kopurua 7.300 / Lege gordailua SS-512/02 / ISSN zenbakia 1579-5519



Babesleak:



Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

ZEURE BERBEA

Klima aldaketea

Klima aldaketea, zalantza barik, gizakiak bizi dauan ingurumen arazorik garrantzitsuena eta azken mendetako larrietakoa da. Fenomeno hau asko bizkortu eta larriagotu da gizakiaren ekintzen ondorioz, eta horrek dakar, beste arazo askoren artean, espezieek denpora gitxi dabela egokitzeko eta desagertzen dabizala.

Klima aldaketea arrakatsutzat hartu daiteke, gizartearen ekonomia eta mundu naturala larri mehatxatzen dauanean. Prozesu biotikoak, Lurrak jasotako eguzki erradiazioaren aldakuntza, plaken tektonika eta sumendi erupzio lango faktoreek eragiten dabe. Giza jardura batzuk azken klima aldaketearen errazoi nagusitzat be identifikatu dira, askotan "berotze globala" (gure planetako tenperatura igoera) deitzen dana. Zientzialariak aktibo dabiz beharrean iraganeko eta etorkizuneko klima ulertzeko eredu teorikoen eta behaketen bidez.

Gai honek alde bi ditu, argudio desbardinak. Badago jentea klima aldaketea betidanik existidu dan gausa naturala dala pentsetan dauana eta ez dala gure errua. Beti naturala izan da eta ez dogula proboketan.

Adibidez: Klima Aldaketari buruzko Gobemu Arteko Taldeko (KAGAT) adituek dinoenez, daborduko, klima aldaketea sistema natural askotan eragiten dabil, kontinente guztietan eta ozeano batzuetan. Klima aldaketearen alde dagozan zientzialariek pentsetan dabe holan jarraitu ezker, tenperatura 2 edo 3 gradu igoten jarraituko dauala, lehortek eragiteko gai.

Bestetik, guztiz desbardin pentsetan dauan jentea dago. Klima aldaketearen aurka dagozan personek uste dabe tenperatura aldaketeak gaixotasunak eragiten dituala, esate baterako, boladak, uholdeak eta lehortek lango hondamendi naturalek eraginda, urtean 150.000 heriotza inguru eragiten dira herrialde azpigaratuatan. Gainera, petrolioa, iktza eta gas naturala erreteak CO₂-a handitzea eragin dau.

Araza hori konpontzen saiatu diran personaia publikoak dagoz, gero eta jente gehiagok konponbidearen parte aktiboa izan daiten eta ez arazoarena: Leonardo DiCaprio, esaterako. Ingurumeneko dokumentalik onenetako eta osoenetako baten ekoizlea da (*Before The Flood*). Irudi hunkigarrien bidez gizakiak klima aldaketa horren zati handi baten erantzule izatearen arazoa jorratzen dau, horrerri esker jente asko konturatu da gure planeta konserbetako ohitura aldaketea beharrezkoa dala.

ANDONI VAZQUEZ

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu 15 lerro baino gehiago idazterik. Izena, telefonoa eta Nortasun Aginaren zenbakia agertu beharko dira. Laburu behar izan ezker, ВЕРГІТК eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: begitu@begitu.eus helbidera.

Zirhika

ARTELATZ ETA TXARAKIN

Leire ta Aner institutuko klase baten dauz. Bitartean, irakaslea arbelean. Leire adi-adi dau baia Anerrekin ezin dotse eutsi ikasturte-hasikerako galbaneari.

Leire: Hi, itxartu hai! "Kaparra" konturetuko dok!

Aner: (Lo txarriegaz) Zer... zer...?

Leire: Baragarri hori! Hik ez hindun, ba, klase honetara etorri gure? Esan doat ba piper eiteko!

Aner: Bai, baia nik..

Leire: Potrohandi hori! Aspaldion tarrax daroazak!

Aner: Barkatu, ez naz konturetu... enona konturetu "Kaparra"gaz apelik dala.

Leire: Astune ez badok, gero, hori!

Aner: Binke!

Leire: Bale ba, baia hurrungoan eiztek kasu.

Aner: Bai, tabernan armozetan lotu beha gintzozanan.

Leire: Egoai lasai, oin hamar minutuko atsedendie jekuk..

Aner: Ta?

Leire: Hiri dana azaldu beha jataa..

Aner: Kar kar kar. Itzell! Goazana tabernara!

Leire: Eteet!

Aner: Bai, armozue nire kontu!

Leire: Horiok eta! Holantxik gustetan jatak!

ERETXIA

Argindarra: kaltea ez da boltsikorako bakarrik

Hilaren 8ko gauean argia amatatzeko ekimena pasau barri dala, jakizu bizi dogun argindarraren krisi honek ez deusula boltsikoan bakarrik eragingo; izan be, gure herriotako inguruneetan kalte larriak igarten hasi gara. Begiratu Mandoia ingurura zertaz berba egiten gabizan ikusteko.

Energia elektrikoaren garestiztearen eta funtsezko baliabideen eskasiaren ondorioz, egiturazko energia krisi baten ateetan gagoz, eta horrek, zalantza barik, ondorio kaltegarriak izango ditu gure ingurune sozioekonomikoan: prezio igoerak, autonomoen eta enpresen lehiakortasunaren gale-rea, negozio eta enpresen itxierak eta langabezia.

Igoerearen arduradun dan Espainiako oligopolio elektriko lau enpresa elektriko handik (Iberdrola, Naturgy, Endesa eta Repsol) osotuten dabe. Sistema elektriko gura daben moduan kudeatzen dabiz, eta horren seinale da, esaterako, gure basoetan apurka-apurka eratuten dabizan altzairuzko torreak.

Enpresa horreen eretxian, preminazkoa da laugarren autobide elektrikoaren eraikuntza Gueñes eta Ezkio-Itsaso artean. Euren asmoa da Mandoiatik eta Aramotzetik zehar, Igorrebaso, Basauntz, Garakoi, Urkuzu, Garai eta Garamenditik pasetea goi-tensinoko linea bat.

Kontuan hartuta Espainiako energia sistemearen potentzia instalatuak egon leiteken gehieneko energia konsumoa laukoizten dauala eta, horrezaz gain, konsumoa bera murriztuten doala urterik urte, zergaitik dauka oligopolio horrek beste autobide elektriko bat eregiteko premina? Erantzuna topetan hasteko, komenidu da datu batzuk jakitea.

2009an, Red electrica Española S.A.U. enpreseak (Espainian



MAKATZAK ARRATIAKO EKOLOGISTAK

argindarra garraiatzeko monopolioa daukan enpresa publiko-pribaduak) Gueñesetik Ezkio Itsasora egin gura dan autopista elektrikoaren tramitazio administratiborako lehen pausuk emon ebazan.

Handik 8 urtera, 2017an, egekuzino proiektua argitaratu zan, eta, besteak beste, Arratian bizi diran ehunka kaltetutako proiektua salatu eta alegazioak aurkeztu ebazan; aurkeztutako errazioen artean bi ziran nagusiak: proiektuak ez dauala ezelango gizarte onurarik ekarriko, eta, ingurumenaren aldetik aztertuta, legez kanpoko dala.

Alegazioak gorabehera, gaur egun proiektuak martxan segiduten dau, eta horren seinale da lineak beharko dituan torreak ikusten hasi garala gure lur eta basoetan. Halanda be, Arratiako txoko baten linearen lanak geldituta dagoz: Aramotzen.

Bertako obrak gelditzeko aurkeztu diran errazioak ingurumenaren kontrako kalteakaz lotuta dagoz; izan be, instalazio torreak eraiki ezker, babestutako hegazti harraparien bizilekuetan eragin larriak egongo dira; batez be, arrano txikia, belatz handia eta sai zuriaren habia lekuak kalte konponezinak eukiko leukiez. Esan behar da egoera larrian dagozan espezie horreen zaintzaren

ardurea Bizkaiko Foru Aldundiarena dala.

Gauzak holan, Makatzak taldeak segiduko dogu salatzen proiektuaren ingurumen inpaktuari buruzko txostenaren ebaluazio lana oso eskasa izan dala, balio eta garrantzi handiko ondare elementuak beren-bereri ixten ditualako alde batera.

Jakin beharrezkoa da, esaterako, goi-tensinoko linea Pagotxuetako ondare arkeologiko babestuen (tumulu megalitikoak) eta Aramotzeko Santa Marina presunzino arkeologikoko eremuaren gainetik joango dala, eta eragin horreek guztiak ez dagozala jasota alde aurreko ingurumen inpaktuaren azterketan. Alkartetik uste dogu holango azpiegitura handiek eragin larri, onartezin eta berreskurazekin sortzean dituela landa ingurunean.

Makatzakekook adi jarraituko doguz zabaldu diran auzi judicialak (Justizia Auzitegi Nagusian eta Auzitegi Nazionalen); era berean, prest gagoz akzino penalak abiarazoteko desagertzeko arriskuan dagozan espezieen habien gainean goi-tensinoko linea jartzeko saiakera ardurabakoen kontra.

Duda barik, energia barriztagarrien alde gagoz, baina ez dogu onartuko argindarraren oligopolioak (ondarea zaintzeko ezelango interesik erakutsi ez daben administrazio eskudunen itxieria lagun), gure mendiak, auzoak eta kulturea zein natura ondarea suntsitzea; azken finean, gure bailararen iragana eta etorkizuna desagitea.

Energia sistema barrirantzako transizino bidezko bat defendiduten dogu; gure eretxian, eredu barriak deszentralizaua izan behar dau, eta inguruko autokonsumoa sustatu, adibidez, energia komundadeen bitartez. Horregaitik, energia enpresa handiak gidatzen dabizen transizino eredu berehala gelditu behar da.

Badagoz aukerak ordu erdiko itzalaldietatik harago argindar justuago bat izateko eta enpresa handien asmo suntsigarrien aurka egiteko.

NETFLIX EUSKARAZ

WWW.PANTAILAREUSKARAZ.EUS

EUSKARAZKO
IKUS-ENTZUNEZKOEN
ALDEKO EKIMENA

Sinatu eskaerea helbide honetan:

<https://www.change.org/p/basque-governments-netflix-netflix-euskaraz-in-basque-en-euskera>

LUMATUTEN



RAFA UGALDE

**COOFICIALIDAD:
Si A es co de B,
B es co de A (II)**

Azken baten 2/2016 Legeak eta dekretuak ahaleginak egiten dabez euskera gaztelaniaren moduan erabilerara normal eta orokorrekoa izan daiten administratzi- noan. Gainera, eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzen Europako Gutunak hauxe dakar: "Eskualde edo eremu urriko hizkuntzen aldeko neurri bereziak hartzea ez da hartuko eremu zabalagoa daben hizkuntze- tako hiztunen aurkako diskriminazio-ekintzat, neurri- on helburua eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzok erabil- ten dabezaren eta gainerako herritarren arteko bardintasuna bultzatzea edo hiztun horreen egoera partikularrak aintzat hartzea bada". Baina, VOXek eta EAEko Auzitegi Nagusiak ez dabe gura hizkuntza ofizial bien bardintasuna bideratu gura dauan tresna bat. Eurak gura

dabe gaztelaniak daukazan pri- bilegioak ez galtzea, halan dino- eta Espainiako Konstituzinoak 3. artikuluan:

1. *El castellano es la lengua española oficial del Estado. Todos los españoles tienen el deber de conocerla y el derecho a usarla.*

2. *Las demás lenguas españolas serán también oficiales en las respectivas Comunidades Autónomas de acuerdo con sus Estatutos.*

Gaztelania ez dan beste hiz- kuntzak ez dago el "*deber de conocerla*"; beraz, gaztelania lehenetsita dago komunidad- e autonomoetan be. Auzitegi Na- gusiaren "Autoak" hizkuntzen arteko koofizialitatea aitatu- dau, baina gaztelaniaren pri- bilegioak babesten dauz, eta ez dau koofizialtasuna errespetetan, ze Jose Manuel Moreno Cabrerak dinoan moduan: *Si A es co de B, B es co de A.*

ZERTZEAN



MAITE ARRIZABALAGA

Ohean nago etzanda jadanik ez dut indarrik nire barneko argia itzaltzen ari da ezpainak hotz ditut ximeltzen ari den lore bat naiz banoa, apurka-apurka ez dakit zer datorren baina prest nago.

Heldu da unea egin dut nire azken hatsa eraman nau heriotzak besoetan lehortu da lorea eta bera hor dago, nire txikia negarrez itota ezin ezer ulertu, munduarekin haserre ez nuen berarekin hitz egiteko indarrik bukaera hau ulertarazteko egia ukatu genion, denok babestu nahian, bizitzari sufrimendua leporatu eta ene umea galduta amonak ihes egin diola sinetsita.

Ane beldur da hotzikara batek gorputza zeharkatu dio

* Zertzean atalean argitaratzen doguzan testuak, literarioak edota sormenekoak diranez, heltzean diran mo- duan argitaratuko doguz eta ez doguz gure euskera eredian ipiniko.

Tarte hau zeuretzako be dago zabalik, holango sormen-lanak BEGITU argitaratu gura izan ezker, eskatu egiguzuz argitaratzeko baldintzak begitu@topagunea.com helbidean.

Lorearen hazia (I)

* Ume guztientzat, lagunduko deusuelakoan.

izuak arrazoia irentsi du galderaz josita ziurgabetasunari etsita amona zendu da bizitzako mugetatik harago horrelakoak zergatik gertatzen ote diren behin eta berriz bere buruari galdetuz heriotzak beste inor lapurtuko dionaren ikaraz ama, aita... sumintasan zitzadak erraietatik atera ezinean.

Aitonak jaso du magalean eta kontatu dio bizitza ederra dela bizitza jolasa dela baita ilargiaren argia loreen usaina negu gorriaren hotza udaberriko euria bizitza bera dela, familia, lagunak... baina une zailak ere, hainbeste gorroto dituenak bizitza dira eta horietatik ikastea ere bada bizitza bizitza, inguratzen gaituena maitatzea, saritzea eta onartzea da jakinduriak betetzen gaituena.

BEGI TXINDORRA

Aurtengo udan Oporton egon naz eta historian zeharreko gazte be- launaldien heriotza tristeen memoria gordetzen dabez hainbat leku eta monumentu dagoz han. Uriak, aurreko gazteakaz zor moduko bat kendu gura dau, antza, heriotz horreek memorian izanda. Aurreko belaunaldietako denporea baino lehenago hildako hareek gogoan eukitea interesgarria iruditu jatan eta gaurko gazteak be kontuan hartuko dituela Oporton pentsau neban, beste zor historiko bat ez egiteko, behintzat.

Lemoako Udalak, frankistek Lemoatxan ipinitako kurutzea kentzea ebatzita eukan aspaldi. 2011tik hona, memoria historia berreskura- tzeko lanean dihardu Udalak eta Lemoatxako batailan gertatutako be ikertzen frankisten errelatutik harago. Eta bertan gertatutako aurreko belaunaldi baten gazteen heriotzak eta bizitzak gogoratu gura ditu. Duintasuna itzuli. Harrezkerotik, inguruan, hildako miliziano gazteen gorpuzkin batzuk topau ditue eta familiakoei entregau.

Bai, Udala Lemoatxako kurutze frankistea kentzeako zan, baina ez dau egin beharko, Ernaiko gazteek, Hispanidatearen egunaren bezperetan aurrea hartu eta eurek bota eben kurutzea eta. Bideoa grabau eta sare sozialetan zabaldu eben gero. Han hil ziranen oroi- menez. Orduko gazteenganako zorra kenduz.

Udalak jakinarazo dau ez dauala kurutzea barriro eregiko Memoria Historikoaren Legearen kontrakoa da eta.



Gorosti Lorategien Diseinu eta Gauzatzea
Ureztaketa instalazioa
Mantenua eta Inausketa
LORAZAINTZA
Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88
gorosti@gorostiscl.com

begitu .eus

TERRITZOKA
Igorrien giroak osatu!
Lekuntzari Ageri III
Igorri

agoa Ortodontzia
Implanteak
Estetika
hagin klinikoa
Marina Urigoitia Aldekoa
Odonatologia
Bidebarri 1. behea
48140 Igome-Bizkaia
T. 94 631 50 39
Kalejuru Zirkularre 100
R.P.S. 21/06

Ekomuseoa, musikarako espazio bizia izatea gura dau Arteako Udalak

Herritarren ekarpenak jasoteko fasean dago proiektua. Ekomuseoa, musikara bideratuta egongo da eta erakusketak egoteaz gainera, musika laborategi bat, sormenerako espazioa, Arratiako Musika Eskolako egoitza, entsegu gelak, ekitaldi musikalak egiteko espazioak eta abar izatea be gura dau Udal gobernua.



Museoaren infografia.

Erredakzioa

Leku bizia izatea da helburua; musikarientzako lanleku eta herritarren musikari lotutako beharrian kulturalak gauzatzeko lekua izatea, hain zuzen be. "Lanleku horrek emongo dauz gero bere emaitzak. Esate baterako, ekitaldi musikalak, musikaren gaineko berbaldiak... baina zeozer dinamiko eta zeozer bizia. Agenda kulturala egongo da musikearen ingurukoa eta musikea izango da bertako sortzaile eta dinamizatzailea" azaldu deutso BEGITURI Gorka Beitia EAJ-PNVren zinegotziak.

Alkarte eta herritarrei aurkeztu ten dabizan zirriborroan, plaza bat dago erromeriak egiteko, harrera leku bat eta igogailua erakusketetara kanpotik joateko, -oin gora joateko tabernatik sartu behar da-, aterpeko anfiteatroa ehun persona ingururentzat eta kabina insonorizatuak erakusketetako edo beste musika batzuk entzuteko.

Erakusketei jagokienez, finkoa eta behin-behinekoak planteetan dabiz Udaletik. Finkoa, Maurizia eta Leoneri eskaintzea gura dabe. "Familiakaz egon gara kontaktuan eta badaukaguz erropa batzuk, alboka batzuk, pandero batzuk...".

Besteak beste, Euskal Museo eta Enkarterriko Museoagaz sareta egongo litzateke Ekomuseo barria, museo batera doana bes-

teetara be joatea sustatzeko.

Finanziazioa

Udalak egin dauan proiektuaren balorazioa 950.000 eurokoa da, baina dana dirulaguntzakaz egiten saiatuko dirala dino Beitia. Bizkaiko Foru Aldundiak 750.000 euro ipiniko ditu eta beste 200.000 euroak lortzeako Leader Programako dirulaguntzak eskatuko dituela dino zinegotziak. Leader programea fase bitan doa eta 2022an 100.000 euro eta 2023an beste 100.000 eskatzeko asmoa daukie. Ha-ta guzti be, Udalak 70.000 euro konprometidu dauz aurrekontuetan, "dirulaguntzak geroago etorten diralako eta ordainketa batzuk aurretik egin behar diralako". Baina Udalaren asmoa, proiektuaren %100 dirulaguntzen bitartez lortzea da.

Ekomuseoa berbiztuteko proiektua

Ekomuseoa berbiztutea EAJ-PNVren hauteskunde programearen barruan egon zan. "Lehenengo urtean hasi ginan lanean, zer edo zelan berbiztu pentsetan. Eta atera genduan konklusioa izan zan, zeozer egin behar zala. Dima Antzasti museo etnografikoa sortu danez, eta oso ondo dagoala ikusita, ikusi genduan bere momentuan Ekomuseoak bete eban hutsunea, beteta dagoala, Antzastik bete dauala". Eta beste ikuspegi bat emotea ebatzi eben

jeltzaleek.

Arratia osoko seirehun ikasle inguru dituan musika eskolearen egoitza Artean dago eta hori "potenzial" baten moduan ikusi eben. Musika eskoleagaz hasi ziran berbetan, baina pandemia dala eta emondako dekretuek dana gelditu eben. Urtebete beranduago, berrartu eben proiektua itxitako lekuan. "Hasi ginan berbaz enpresa bategaz aurrera eroateko, oinarri-oinarriko zirriborro bategaz, lau folio. Maiztean, Ekonomi Sustapeneko sailetik Aldundiak dirulaguntzak emoteko Dekretua atera eban. Dirulaguntza batzuk egongo dirala inoan eskualdeak berbiztuteko dagozan proiektu ekonomiko kultural, hezkuntzakoak eta abarri emoteko. Baldintza zan, 2022ko abenduaren 31rako proiektua garatu eta lana amaituta egotea", Next Generation bitartez bideratutako da eta. "Guk erakutsi geuntsen geunkana eta Sustapen eta Kultura sailakaz egon ginan Aldundian. Kulturakoak esan euskun oso idea ona dala baina garatu behar dala eta Sustapenetik esan euskuen Kulturatik ondo ikusten bada, potentziala badauka eta abar, eurak prest egongo litzatekezala proiektua baloretako. Eta bagilean emon euskuen baiezkoa, prest dagozala dirua emoteko".

Hori dala eta kontuan izanda 2022a amaitu orduko, lanak amaituta egon behar dirala, garagarrilean kronograma bat egin eben. Horri jarraituz, urri lehenengoan esleitu zan proiektua. Oin, alkarte eta herritarren ekarpenak jasoten dabiz eta Gabonetarako enpresek aurkeztu behar deutso proiektua Udalari, lanak 2022ko zezeilean hasi eta abenduan amaitutako.

EH Bildu

Proiektuan herritarren parte hartzerik ez dala egon eretxita, hilaren 16an, 12:30etik 13:30era Arteako plazan egongo da EH Bildu herritarren eretxiak jasoten Udal gobernari heldu arazoteko. Euren eretxian proiektu hau herri galdeketea egiteko bestekoa da eta "Noren beharrei erantzuten deutso proiektuak? Zein da oin-

go museoaren egoera? Herriko berdegune erabilienean dala konturatu zarie?" galdetzen dabe EH Bildukoek.

EH Bildukoek arabera, esparru publikoen berrantolaketarako, "lehenengo pausua herriari galdetzea da, gero alkarregaz diseinua egin eta atzenik azpiegitura eregitea". Eta ezin da "herritarrak kontuan izan barik, herriko berdegune erabilienean proiektu bat abiatu".

Proiektuaren aurrekontuak be kezkatzen ditu EH Bildukoak. "Proiektuaren eraikuntza faserako ia 1.000.000 euroko aurrekontua

ei dago. Nondik urten dau aurrekontuetan isladatuta ez egoan diru horrek? 45.000 euroko dirulaguntzea jaso da bat-batean Bizkaiko Diputazinoko Kultura departamentutik eta industrialdean eregiten dabizen eraikin barriaren zergetatik jaso diran 56.000 euro erabili dira gastu honeei aurre egiteko. Horretarako aurrekontuetan kreditu aldaketa bi egin ditue. Azpiegitura eregiteko dirua beste dirulaguntza bategaz egingo ei da, baina mantenimentua?".

"Ezin da 20 urtez abandonatuta izan daben museoa hiru hilabeteetan birformulau" gehitu dabe.

ARANTZAZU

Egun biko jai egitaraua prestatu dau Arantzazuk sanfaustoak ospatuteko

Hilaren 16-17ko astegoienean ospatuko dabiz jaiak.

Zapatuan, Mugarri Bira mendi urtekerea, baba-jana eta Ein Go taldearen kontzertua egongo da eta domekan, txistulariak, merkadua eta magia ikuskizuna.

Erredakzioa

Bereziak izango dira aurten sanfaustoak Arantzazun, larrialdiaren osteko lehenengo jaiak dira eta lehenengo aldien poza eta herritarren batzeako gogoia igarten dalako egitarauan. Herriko mugetatik mendi ibilaldiagaz hasiko dira jaiak. Partaideak, 09:00etan batuko dira Arantzazuko plazan, herriko mugetatik 12 kilometroko ibilbideari ekiteko. 10:30ean, atsedenditoxa egingo dabe Industrialdean hamaiketako jateko. Eguerdian, herri bazkaria

egongo da plazan, baba-jana, hain zuzen be. Bakotzak bere platera, basua eta koilara-sardeskak eroan behar dauz. Ein Go taldeak animauko dau bazkalostea 17:00etatik aurrera.

Domekan Arantzazuko txistulariak ibiliko dira herritik 09:30etik aurrera jaigiroa ipinten. Gure Azoka merkadua be egongo goizean eta bertan Arratiako artisautzea, erropea eta bigarren eskuko liburuak eta musikea egongo dira salgai. 12:00etan, Imanol Ituño magoak *Magia parrastan* ikuskizuna eskainiko dau.



Ein Go taldeak kontzertua emongo dau Arantzazun.

ARRATIA

Agroekofeminismo tailerragaz hasiko dau ikasturtea Ilgoran Jabekuntza Eskoleak

Diru gitxiago emon dau BFAk eta dirulaguntzen murrizketek eragina izango dabe Ilgoran Jabekuntza Eskolako egitarauan. Igazko kurso amaieran proposatutako kurso eta tailer ia guztiak aurrera ateratea lortu dan arren, zahartzaro feministea landuteko Grisa eta Morea ardatzean ekintza bakarra egingo da.

Erredakzinoa

Pasau dan ikasturtean egin ezin izan ziran ekintza batzuk erreku-perau dira oingoan; ikasturteko lehenengoa, esate baterako. Holan, urri bigarrenaren 22an eta 23an, Artean, aurreko kursoan bertan behera geratu zan agroekofeminismo tailerra egongo da. "Barikuan, alde teorikoa landuko da eta zapatuan, ustiapen bat ikustera joango dira partaideak" azaldu deutso BEGITURI Batirtze Barrero AUMko Bardintasun Teknikariak.

Egutegiari jarraituz, hurrengo tailerra, klasiko bat izango da, *Autodefensa feminista* tailerra, hain zuzen be. Zemendiaren 19tik, abenduaren 10era arte, lau eguenetan jarraian, Bilboko Safo eskolako Ester Lopezek gidatuko dau tailerra Igorreko Kultur Etxean.

Arratiako Orratzak talde feministeak eskatutako lodifobiaren gaineko tailerra izango da hurrengo, urtailaren 28 eta 29an, Areatzan. Barikuan, Miren Jone Lizarzaburuk publiko orokorri zuzendutako berbaldi zabala egin eta hurrengo egunean, izena emon dabenentzako tailer espezifikoa gidatuko dau.

Lemoan, erremintak erabiltea gustuko dabenentzat edo arlo horretan daukien hutsunea bete gura dabenentzako *Locas por las herramientas* tailerra egongo da zezeilaren 7tik maiatzaren



9ra astelehenetan. Andrazkoak txarrak garala erremintakaz mitoagaz amaitzea dauka helburu Paz Carbajosak gidatuko dauan tailer honek. Trebetasun hori lortzeako aurreko ikasturtean, arrakasta handia izan eban elektrizidadearen gaineko tailerra egon zan; aurtengoak zurgintzea landuko dau.

Diman be, aurreko ikasturtekoari segidea emongo deusan *Ahizpatasuna gure gorputzean* egongo da zezeilaren 18 eta 19an eta aurreko ikasturtean bertan behera geratutako Tere Maldonadoen berbaldia Bedian izango da zezeilaren 22an. Feminismoaren gaur egungo zereginen gaineko hausnarketea egingo dau Maldonadok han.

Gizartea aldatzeko militantzian asko lagundu ahal dauan, *Como estar en grupos y no morir en el intento* tailerra emongo dau Mar Garrotek martiaren 25 eta 26an, Areatzan. "Tailer hau sortu dogu pentsau dogulako garrantzitsua dala identifiketea zelango dinamika dagozan taldeetan, zelan egituratzen doguzan taldeok, zelan parte hartzean dogun, zer errespetetan dan eta zer ez... Mar Garrotek formakuntzea dauka taldeen kudeaketan eta nik uste dot oso interesgarria dala batez be talde mistoetan militetan dabenentzat" dino Bardintasun teknikariak. Bariku eta zapatuan izango da. Zapatu osoa hartuko dau tailerrak eta partaideek alkarrengaz bazkalduko dabe.

Barre egiteko gogoia daukienez Diman daukie hitzordua aprilaren 8 eta 9an, Bea Larrañaga pailazoak emongo dauan tailerrean, hain zuzen be. Aprilaren 21etik maiatzaren 26ra, barriz, eguenean, Idoia Eizmendik jentearen aurrean berba egiteko jakin beharrekoak erakutsiko ditu Zeanurin.

Atzen tailerra, maiatzaren 18tik bagilaren 8ra artekoa izango da, lau saio izango ditu. Basoko landare jangarri eta sendagarriak ezetu eta sukaldatzen ikasiko dabe partaideek Marta Miramonen eskutik Arantzazun.

Fetxarik euki ez arren, *Andrak mendian autonomia lantzen* be aurreikusita dago egitea.

Andrezaharraren manifestua

Mari Luz Estebanen liburuan oinarrituta, antzerkia, musika eta poesia buztartzen dituan Metrokoadroka kolektiboaren ikuskizuna ikusteko aukerea egongo da maiatzaren 21ean Igorren. "Hau, Morea eta Grisa, zahartzaro feminista landuteko esparruan dago sartuta. Beste proposamen bat be baegoan baina aurten ez dago aurrekonturik biak aurrera aterateko, honek aurrekontu handia eskatzen dau eta" azaldu dau Barrerok. Morea eta Grisaren ikasturte honetarako beste proposamena *Poesia de viejas para chicas listas* umorezko bakarrizketea zan. Izan be, asmoa zan zahartzaroaren gaineko hausnarketea arte eszenikoen laguntzeagaz egitea.

LEMOA

Gazteei alokairua ordaintzen lagunduko deutse Lemoako Udalak

Erredakzinoa

Euskadin gazte gehienak 30 eta 34 urte bitartean emantzipetan dira eta European gazteak gurasoen etxetik beranduen joaten diranen artean dagoz. Eurostat-en arabera (2019ko datuak), gurasoen etxea gazteen ixten dabenak suediarrek dira, (17,8 urte) eta beranduen alde egiten dabenak kroaziarrek (31,8 urte). Etxebizitzaren prezio altuak eta lanen prekarizazioa dirala eta, hogeta hamar urte beteta be, gatx egiten jakie Euskal Herriko gazteei bizitza independente proiektu bateri ekitea. Horregaitik eta euren emantzipazio prozesuan gazteei babesa emoteko, Lemoako Udalak alokairua ordaintzeko dirulagun-

tzak eskatzeko epea zabaldu dau.

Hilaren 28ra arte eskatu lekiez dirulaguntzok Lemoan etxebizitza alokairuan hartuta daukien 18 eta 35 urte bitartekoek. Eskatzaileen diru sarreren arabera izango da dirulaguntzea. Handiena, alokairuaren %50 eta gehienez 300 eurokoa da, urteko diru sarrerea 3.000 eta 9.000 artekoa daukienezakoa. Diru sarrerea 9.001 eta 18.000 euro bitartekoa bada alokairuaren %40 eta gehienez 240 euro jasoko dabez. Urtean, 25.000 eurorainoko diru sarrerea daukienez lagunduko dauz Udalak. Kasu honetan hileko alokairuaren %30 eta gehienez 180 euroko dirulaguntzea. Laguntzeak 8.000 euroko aurrekontua dauka.



DIMA

Ume eta gazteei eragindako kalte psikologikoen gaineko berbaldia

Erredakzinoa

Urte eta erdi luze honetan COVID-19a dala-eta hartu diran neurri murriztaileek sufrimendu handia eragin deutsee ume eta gazteei eta buruko nahasmentuak, arazo psikologikoak eta suizidioak asko hazi dira adin txikikoen artean. Rakel Amigo, osasun psikologoa eta psikoneuroinmunologian aditua eta Estibalitz Vegas psikologoa eta haurren prebenzioan aditua, Dimako Abaroa aretoan egongo dira hilaren 30ean, 18:30ean, neurriok zelan eragin deutseen umeei eta zelan lagundu ahal jakien hausnartuteko. Izena aldeztu aurretik emon daiteke bizitzaarratia@gmail.com helbidean.

Bizitza Arratia taldeak Haurrak eta COVID izeneko berbaldia antolatu dau, COVID-19ari datuetan oinarrituta eta hedabideek emoten ez daben beste begirada bat emoteko asmotan.



Bizitza Arratia taldea

Konfinamentua amaitu zanean, dekretuek ezartzen ebezan oinarritzko eskubideen urraketakaitik kezkatuta, Lemoako Karabie Gaztetxean egoeraren gainean hausnartzeko berbaldi batzuk antolatu ebezan gaztetxeako batzuek, "Informatu, pentsatu, ekin" lemapean. Berbaldi hareetatik sortu zan Bizitza Arratia taldea, COVID-19ari aurre egiteko hartu diran neurriak kritiko dan jenteezagaz. Momentu honetan, taldean, Arantzazu, Dima, Igorre, Lemoa eta Zeanuriko jentee dago.

ARRATIA

Telefono finkoko zenbaki barria dauka BEGITUK

Erredakzinoa

Hemetik aurrera 94 673 90 13 zenbakira deitu behar da telefono finkoaren bitartez BEGITUGAZ hartu emonetan ipinteko.

BEGITUKO hiru beharginen telefono mobikorrek honek dira ostera: Beatriz Azpiri 649 979 112, Asier Abrisketa 626 647 923 eta Iñigo Iruarizaga 649 979 115.

ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

Osasun larrialdia bertan behera itxi eta Labiren aholku batzordea desegin dau Lehendakariak

Erredakzioa

Lehendakariak amaitutzat emon eban osasun larrialdia urri bigarrenaren 7an publikautako dekretuaren bitartez, eta Labiren aholku batzordea desegin zan. Osasun larrialdia bertan behera itxita, neurri murriztaile gehienak kendu ziran, batez be, espazioen edukierei, ordutegiei eta talde bilkurei jagokienak.

Holan, oin jentea alkartzeko mugarik ez dago espazio publiko zein pribaduetan eta larrialdiaren aurretik egozan ordutegiak errekupeau dabez jarduera sozioekonomiko eta kulturalak. Tabernetan, zutunik eta barran konsumidu daiteke. Ha-ta guzti be, kirol eta kultur ekitaldietan ezin da jan edo edan, ura izan ezik. Mosukoari jagokonean, Espainiako gobernua arautzen dau erabilera, eta leku zarratuetan edo-eta distantziarik gorde ezin danean aire zabalean erabilteko araua ez da aldatu.

Eskoletan protokolo barria

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza

Sailak protokolo barri bat bialdu dau ikastetxeetara, neurri batzuk arinduz. Protokoloaren arabera, DBH eta Batxilergoko ikasleek aukerea eukiko dabe patioan maskarea kentzeako; ez ordea, Lehen Hezkuntzakoek. Lehen Hezkuntzako burbuilak edo talde egonkorak mantenduko dira ikasgela barruan, baina patioan, maila bereko ikasleen arteko hartu-emonak baimendu dira.

Datuak astelehenetan

Labik osasun larrialdi egoera bertan behera itxi ostean eta Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa aro barri baten sartuta, pandemiaren bilakaerari buruzko informazioan be aldaketak egin dirala adierazo eban Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak. Hori dala eta, koronabirusaren transmisioari buruzko datuen barri eguneroko emoteari itxi eutsan urri bigarrenaren 9an, eta, horren ordez, aste osoko datuak jasoten dauan txostena publikatu dau astelehenetan.

ARTEA

Merkadua eta jaia Artean

Erredakzioa

Urri bigarrenaren 16rako gastronomia eta kulturearen inguruko jaia antolatu dabe Artean, Gorbeia Altxorrek ekimenaren barruan. Merkadua, Maurizia Aldeiturriaga panderojoleari lotutako *Izan bagara* ikuskizuna, eta Artea eta Maurizia gaitzat hartutako bisita gidatu bi dagoz programauta besteak beste.

Urri bigarrenak 16, zapatua

11:00etatik 14:00etara, Gorbeia ekoizle eta artisauen azokea.

11:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 20:00etara, Gorbeia informazio puntua, Guikuri bus, moda salmentea eta umeentzako sormen txokoa.

11:00etatik 12:30era, *Artea eta Maurizia Aldeiturriaga ezagutzen* bisita gidatua. Alkartzeko gunea: Gorbeia info puntua. Erreserbak www.gorbeiauskadi.com webgunean.

12:30ean, 13:00etan eta

13:30ean, Ugabe txakolina eta Etxebarri baserriko ogi eta ezti dastaketak. Alkartzeko gunea: Gorbeia info puntua. Erreserbak www.gorbeiauskadi.com webgunean.

12:30ean, Arratia Kantuz, goiz musikala.

17:00etan, Guikuri moda desfilea.

19:00etan, *Izan bagara* ikuskizuna, jantzea, herri-kirola eta folk musikea Korrantziren eskutik.

20:30ean, amaiera.



ARRATIA/ZEBERIO

Arratiako I. Gazte Egune ospatuko da hilaren 16an Igorren

Erredakzioa

Arratia eta Zeberioko gazte eragile eta asanbladak batuko dauzan lehenengo jaialdia izango da hilaren 16an ospatuko dana. "Badoa, Bagabiz, Badator" lemeagaz deskribidu dabe eskualdean errotzen dabilen gazte mobimentua.

Goizeko 09:30ean Kiñu Gaztetxean hasiko da jardunaldia, danak batera gosaria hartzean. Indarrak hartuta hasiko ditue formakuntza saioak, berbaldi eta debateak, 13:30ak arte. Bitartean, herri azokea egongo da, inguruko produktu eta saltzaileak batuko dituan merkadua. Umeentzako tailerrak be egongo dira azokeagaz batera.

Goizeko planak beteta, bertso-bazkaria antolatu dabe. Menu beganoa ogi, ur, ardao eta kopeagaz zerbitzatuko da. Sarrerak bederatzi eurotan erosi daitezke Igorreko Herrikoan, Lemoako Atxetan eta Zeberion, Maribiren dendan. Bazkaria, eguraldiaren arabera, frontoian edo Gaztetxe alboko landan egingo da.

Arrastian herritik rally-poteoan ibiliko dira gazte kuadrillak, 21:00etan Gaztetxera bueltatu arte. Bertan El exterminio de la raza del mono eta Galazota taldeek emongo dabez kontzertuak, azken hau talde arratiarra da, bere lehenengo zuzenekoan. Gaua amaitzeko giroa DJ Balkiriaren esku geratuko da, murrizketen osteko Arratiako lehen jaialdian.

ARRATIA

Otzarretako pagadira bisitea eta Antzastin sutondoko topaketak eratu ditue ondarearen jardunaldien barruan

Ondarearen Europako Jardunaldien barruan eta "Guztion ondarea, guztiok parte" lelopean, hilaren, 23an, ekintzak antolatu ditue, Areatzan eta Diman.

Erredakzioa

Zeanurin be Andra Mariko erretaularen gaineko azalpenak jasoteko aukerea egon zan urri bigarrenaren 9an.

Urri bigarrenaren 23rako, zapatu goizerako prestatu dau Areatzako Parketxeak, *Natura bizian* izenpeko jarduerak. Azalpenak euskeraz eta zeinu hizkuntzan jasoko ditue bertaraten diranek. Partaideak 11:00etan batuko dira Saldropon, izena alde aurretik emonda 94 673 92 79 telefonoan. Lauzprobost kilometro inguruko zailtasun bajuko ibilbidea da eta, besteak beste, Otzarretako pagaditik pasauko da. Udagoienean ekosistema desbardinez gozatutako aukerea eskaintzen dau jarduerak honek.

Beste hitzordu bat be bada go zapatu horretako arrastian, 17:00etan, Diman; Afrika eta Euskal Herriko ondarearen alkartrukea sutondoa, hain zuzen be. Artaun

auzoan dagoan Antzasti Euskaldunon Etxean izango da eta izena udaletxean edo 94 631 57 25 telefonoan emon daiteke.

Jarduerak euskeraz eta arabieraz izango da eta Dimako Udalak, Txumulueta Kultur Elkarteak, Dima Harrera Herriak eta Antzasti Euskaldunon Etxeak antolatu dabe alkarlanean, Euskal Herriko eta Afrikako komunitate batzuetako ondarearen alkartruke hau. "Topaketea hasiko dogu jatorria kontinente

afrikarrean daukien hainbat komunitate gure etxera konbidatuz eta Antzasti Euskaldunon Etxean bisita gidatua egingo dogu. Horren ostean, suaren inguruan alkar-tutea, kultura guztiok konpartidu dogun zerbait danez, sua egin eta bere inguruan, jatorria kontinente afrikarrean daukien hainbat komunitateko eta jatorri euskalduneko ipuin tradizionalak eta gastronomia tailerrean prestatutako jakiak" azaldu dabe antolatzaileek.



Antzasti museoa.

ARRATIA

Errotak Challenge 4.0 programearen deialdia ipini dau martxan

Erredakzioa

Programa honen helburua eskualdeko enpresa txiki eta ertainei eraldaketa digital jasangarriaren bidean laguntzea da, epe luzera hazkunde jasangarria lortzean laguntzeko, negozio eredu barritzaile, errentagarri eta jasangarriagoak garatuz. Digitalizazioa da katea, eta horrek "aukerea emongo dau gitxiagotzeko gehiago egiteko, bezeroakazko eta hornitzaileakazko hartu-emona hobetuz, balio erantsi handiagoko produktu eta zerbitzuen bidez" dino Errotak bere webgunean.

"ETEak gure ekonomiaren bizkarrezurra dira, eta haaren arrakastearen menpe dago hazkunde ekonomikoa eta munduko produktibitatea. Enpresaren lehiakortasuna sustatu ezker, modu sendoagoan, orekatuagoan eta jasangarriagoan haziko da. Pandemiak eragindako krisia gorabehera, teknologia industria errotik eraldatzen dabil, eta, zehatzago, balio kateak eta ekoizpena. Egoera horren aurrean, enpresen dinamismoa eta bizkortasuna funtsezkoa da aurrera nortzuk doazen eta zaharkituta nortzuk geratuko diran zehaztuteko. Gure enpresei eraginkortasun, produktibitate eta iraunkortasun handiagoa emongo deuseen teknologia barrien alde egiteko momentua da" gehitu dabe.

Horregaitik, Errotan Challenge 4.0 programearen 2021eko deialdia ipini dabe martxan. "Arratiako enpresa txiki eta ertainei parte hartzeako konbitea egiten deusegu, euren enpresetan digitalizazioa sustatu gura badabe".

JUAN CARLOS LOPEZ QUINTANA ARKEOLOGOA

Gorbeiaiko indusketek Bizkaiko megalitismoaren garrantzia frogatzen dabe

Hogei urte daroaz Agiri Arkeologia Elkarteak Gorbeian historiaurrea ikertzen eta bertan, denpora honetan, besteak beste, lau dolmen eta menhir bitan indusketak egin ditue. Urri bigarrenaren 9an, Gorbeiaiko Parketxeak dolmen horreetako bitara eta aire zabaleko kokaleku aziliense batera bisitea antolatu eban, eta Juan Carlos Lopez Quintana indusketetako zuzendari teknikoak emon ebazan azalpenak.



Bisitara hurreratutako partaideak Mendiganako dolmenean.

Erredakzinoa

Holan, Mendiganako trikuharria, Sustrigiko aire zabaleko kokalekua eta Otsobasoko trikuharrian topautakoa eta topau ez danaren barri jakin eben bertaratutakoek,

historiaurrean zehar 5.000 urteko ibilbidea eginda.

Inguru honetan, historiaurreko aurkikuntzak ez dira izaten oso ikusgarriak "indusketak egin, dokumentau eta barriro integratu", hau da, barriro lurragaz estali egi-

ten dabezalako monumentu eta aztarnategiak. Gainera, lurraren azidifikazioa dala-eta, ez da hazurrik konserbetan; tresna litikoak, iktzak, egiturak, eta monumentu megalitikoak dira indusketetan topetan dabezanak.

2001eko garagarrean egin eben Gorbeia Parke Naturaleko lehenengo indusketa arkeologikoa. Mendiganako trikuharria izan zan. Larrederren aparkaleku bat egiten egozala, makina batek dolmenaren zati bat apurtu eban eta Parke Naturaleko zuzendaritza Agiri alkarteagaz ipini zan kontaktuan, kaltea ebaluetako. Harrezkerotik, Gorbeiaiko historiaurrea ikertzen jarraitu dau alkarteak, hainbat indusketa eginez.

Ehiztari biltzaileetatik nekazari ganaduzainen sasoir

Ibilaldiaren aurretik, arkeologiak datetako erabiltzen dauan metodologia azaldu eban Lopez Quintanak eta historiaurreko sasoi desbardinetan silexagaz egindako erremintak erakutsi ebazan. Agiri alkarteak ikertu dau Gorbeiaiko okupazioa historiaurrean, eta batez be, atzenengo ehiztari-biltzaileetatik, lehenengo nekazari eta ganaduzain taldeetara hartzean dauan 5.000 urte inguruko denpora tartea.

Lopez Quintanak azaldu-takoaren arabera, oin dala 10.500 urte sortu ziran Ekialde Hurbilean, Eufrates aldean, nekazaritza eta abeltzaintza. Hurrengo urteetan, nekazari neolitiko taldeak zabal-tzen joan ziran munduan zehar eta gurera Mediterraneotik etorri ziran. Hedatze prozesu konplejuen bitartez heldu zan Neolitikoan, nekazaritza sortu eta 4.000 urte

beranduago gaur egun Bizkaiko lurra diran parajeetara. "Badakigu jakin, hemen, zerealak, ardiak eta ahuntzak kanpotik etorri zirala, ze hemen ez dago horreen aurrekari diran espezie basatiak" azaldu eban arkeologoak.

Neolitikoan, monumentu megalitikoak sortu ziran. Batez be, hilibiak ziran, baina lurraldea marketako be erabiltzen ziran. Eraikuntza honeek "gizakiaren historian erritu barri bat dira, lurperatze kolektiboa; hau da espazio baten danak lurperatu: andrak, gizonak eta umeak, gizarte kohesinoa adierazoz. Egitura honeek lurraldea marketako be balio eben".

Tumuluetan sartuta dagozanez, trikuharriak ez dira beste lurralde batzuetan bezain ikusgarriak, baina ointsu arte uste izan dan kontrara, Bizkaiko lurretan megalito ugari dagoz eta hilobi funzinoaz gainera, beste funzino batzuk eukiko ebezala susmatzen dabe arkeologoek. Lurrak eta ibilbideak marketako, esate baterako.

Sustrigiko kokalekua

Parketxeak antolatutako arkeologia ibilbidea, aurkikuntza antxinakoenetik hasi zan, Sustrigiko kokalekutik, hain zuzen be. Mendiganako dolmenetik hur dago kokalekua, baina ez da ikusten, bedarrak babestuta dago eta.

Sustrigin, oin dala, 8.500-9.000 urteko behin-behineko giza tal-

**IPINI ZURE IRAGARKIA
BEGITUN!**

Informazinoa: **649 979 115** eta inigoirua@begitu.eus

deen asentamentuen errastoak topau ebezan dolmena induskatzen egoan arkeologo taldeak. "Arkeologok beti ibiltzen gara lurrera begira, zer topauko. Mendiganako indusketea egiten genbizanean, hurrean dagoan aterpetxo batera joaten ginan hamaiketako egiten eguraldi txarra egoanean, eta ibilbidean silexezko zati ugari topetan genduzan. Eta hor zeozer egon behar zala pentsau genduan" azaldu eban aurkikuntza Lopez Quintanak.

Silex pieza horreen teknologia ikusita, dolmena baino askoz antzinakoagoak zirala konturatu ziran; hau da Sustrigiko kokalekua, Neolitikoaren aurrekoa zala. Pieza batzuk datatzera bialdu ebezan eta datazinoek Epipaleolitikoan kokatu ebezan kokalekuan topautako piezok, aziliense kulturean, hain zuzen be; glaziazinoaren ostean, tenperaturak epeldu eta hostozabalak

sortu ziran sasoiak.

Aire zabaleko aztarnategia da Sustrigikoa eta hiru okupazio gune daukaz. Silexezko erremintez gainera, lau bat metro diametroko txabola hondoak, sutondoak, fosilzautako polena eta ikatza be topau zan bertan.

Errasto horreek itxi ebezan taldeak nomadak ziran, ehiztari-biltzaileak. Hurrak agertu diranez, uda amaieran eta udagoien hasieran egongo zirala han ondorioztatu dabe arkeologok.

Txabolen hondoak eta zutabeentzako zuloak be aurkitu ditue. "1 zenbakiagaz markau genduan txabolan sutondo bat agertu zan eta zutabeentzako zulo bi. Baita silexezko piezak. 2 zenbakia emon geuntsan okupazio gunean, sutondo bi egozan, bata ikatzagaz, eta silex pieza asko. Hirugarrena txikiagoa zan, ez eukan ezelango elementurik baina

silex asko egoan bertan". Izan be, Historiaurreko giza taldeak pase-tan ziran lekuetatik silex errastoak ixten ebezan, ze beti ibiltzen ziran erremintak zorrozten eta konponduten. Tenperaturak epeldu eta hezetasuna gehitu ahala hasi ziran gizakiak goimendiak esploretan, ehiza ugari, basoko frutuak eta perretxikoak egoten ziralak. Sustri-
grin topautako polenaren arabera, urkiak, hurretxak, haretzak eta pagoak egongo ziran han.

Mendiganako trikuharria

Hesi batez inguratuta, ondo fiju ezean, bedarra baino ez da ikusten, Larrederren, lur azpian dago-eta Mendiganako dolmena. "Beste lur bategaz estali genduan, etorkizuneko arkeologok jakiteko zer zan orijinala eta zer guk gehitutakoa. Landaredi desbardina sortu da" azaldu eban arkeologok. Mendigana izena ez dala egokie-



Autokontsumo Fotovoltaikoa
Dirulaguntza handiak dagoz, aprobeztatu!

AURREKONTUA ESKATU

Eguzki panelak jarri eta aurreztu %50 zure faktura elektrikoan

Arratian jadanik proiektu asko eginda!

PROIEKTUAREN KUDEAKETA OSOA
Memoria teknikoa, osagaien instalazioa eta legeztapena

944 567 368
www.ekoleds.com
Bedia | Bizkaia
info@ekoleds.com

ekoLEDs
INST. ELECTRICAS
600 565 079

BEER & EDARIAK
Guillermo 659 48 28 39

Fernando 699 29 67 17
Eduardo 647 72 96 24

Arkoitz 677 46 40 91
Golder 666 58 20 06

Pozuetz poligonoa, 10 LEMOA • beeredatoki@gmail.com

Mankun
Pedikun
Depilazioa
Solarrun-a

Bihotza
Estetika Zentroa

Lehendakari Agn. 2 behe - 2D Igoia 689 706 062

na komentau eben bertaratutako batzuek, lur eremu zabal bateri egiten deusalako erreferentzia eta Larrederreko dolmena izango litzatekela egokiagoa, baina Mendigana da emon jakon izena eta holan dago erregistrata.

Mendiganako dolmeneko hileta kamareak 1,70 metro luze eta 0,80 metro zabal dauka. Hazurrik egon ez arren, hilobi kolektiboa zala badakie tresna eta apaingarri asko topau diralako bertan. Hemengo dolmenek ez daukie karrejurik, lurperatzeak goitik egiten ziran. Hileta kamarea, gero muno bategaz estaltzen zan, tumulu artifizial bategaz. Kamara eta tumuluak guztira, 12 metroko diametroa dauka.

Neolitikoaren antzinako fasean eregi zan Mendiganakoa, oin dala 5.000 urte inguru. Gero euki eban ondorengo fase bat, topautako beste material batzuek adierazo daben moduan eta geroago, erabilerea eten egin zan. Mila urte berandua, oin dala, 3.400 urte, brontzezko aroan, ume bat lurperatu eben.

Lurraren azidifikazioa dala-eta hazur eta haginak konserbetan ez diran arren, akaso egozan lekuakaitik, harri azpian, hazurrak eta haginak irudien materialak aurkitu ebezan Mendiganakoan. "Material hori Paco Etxeberriari eroan geuntsan eta esan euskun gizakiaren hazurrak zirala, 3 urteko ume batenak. Gainera, nahiko ondo konserbau zan hagin bateri esker, jakin ahal izan zan umeak infekzino prozesu larri bat izan ebala urte eta erdigaz eta hiru urtegaz hil egin zala".

Otsobaso


Ibilbideari amaiera emoteko, handik hur dagoan Otsobasoko dolmena ikustera joan ziran partaideak. Lopez Quintanak azaldu

ebanez, Pedro Padilla basozainak topau eban 2012an Otsobasoko dolmena. 15 metro inguruko diametroagaz Mendiganakoa baino handiagoa da, konplejuagoa eta monumentalagoa. Baita misteriotsuagoa be.

"2014an, zundaketa bat egin genduan goiko partean. Hor egoten da hileta kamarea. Losa bertikalak topau ezker nahikoa izaten da hileta kamarea dala jakiteko. Etorri ginan abuztuan, astebete inguru egon ginan beharrean, 2x2 metro induskatu genduzan eta ez genduan hileta kamararik topau. Topau genduan izan zan hari egitura bat, dana tumulu balitz moduan, kamara barik". Hurrengo urte bietan indusketeagaz jarraitu eben eta argi geratu ziran dolmenaren arkitektura, erabilerearen sekuntzia batzuk. Losa baten azpian, kamarea egoan, baina barruan ez eben topau espero eben materialik: ez arma edo tresna errastorik, ez apaingarrik... Ikatza baino ez, neolitikoko datazino egiteko balio izan ebana.

Ezer topau ez arren, bere arkitektura hilobiena da eta estalgia dauka. "Tumulu zapala da eta erdian beste tumulu nabarmenago bat dauka. Zer gertatzen da hemen? Tumulu bat eregi eben, kamara handi bategaz. Sano losa handiak ditu. Neolitikoan eregi eben eta zarratu eben losa bategaz" 500 kilo inguruko loseagaz. Zarratu ostean, denpora luzean erabili barik egon zan. Beste sasoi baten, talde bat etorri, lurperatu baten bat, ez dago jakiterik persona bat ala gehiago izan ziran eta beste tumulu bat egin eban gainera eta zigilatu egin eben. Apropo zigilatu be, inoz inok barriro ez zabalduko.

Balio sinboliko handiko dolmena da, misterioz betetakoa.

AZKOREA**Atutxa eta Urruzuno txapelkunorde Bizkaikoan****Erredakzioa**

Azkorako Bizkaiko Binakako Txapelketako finala Sestaon jokatu zan urri bigarrenaren 3an. Aitzol Atutxa dimoztarrak eta Inhar Urruzuno harrijasotzaile ondarrutarrak bigarren egin eben; 16 minutu eta 16 sedundoko denporan lana amaituta. Txapela Larrea aita-semeak eroan eben. Honeek, 15 minutu eta 50 segundo behar izan ebezan 54 hazbeteko sei enbor eta 60 hazbeteko bi ebagiteko. Hirugarren postua Naredo-Irazabal bikotearentzat izan zan.

Hamasei minutu eta 35 segundo izan zan euren marka.

Urruzunok lesino bat izan eban belaunean eta "hilabete batzuk pasautakoan, motibazioa hartzeako txapelketara apuntau ginan. Helburu nagusia bideaz gozatzea zan eta lesinoaren bide malkartsua leuntzea. Horregaitik gustura nago, ton-torrari baino ibilbideari garrantzi gehiago emoten deusat eta postu ona iruditen jata 6 hilabete azkoran daroazan bategaz dala kontuan izanda" azaldu deutso Aitzol Atutxak BEGITURI.

ERRUGBIA**Arratiak errugbi talde propioa izango dau aurten****Erredakzioa**

Arratiko Zekorrek-ek aurten taldea osotutea lortu dau eta "ilusino handiagaz" hasi dabe kurso barria.

Jokalari asko San Txismera inoz joan ez badira be, bueltan dira Arratiko Zekorrek. Jente barria hurbildu da taldera kalean ahoz-ahoz eta sareetan egin daben kanpainari esker eta oingoan lortu dabe jokatu ahal izateko taldea egitea. Atzen urte bietan Gernika B taldekoak batera ibili dira, baina jente barria hurbildu dala eta, taldea osotuko dabe arratiarrek aurten. Halanda be, jokalarik batzuk taldez talde ibiliko dira, beharizanak eskatzen dauanaren arabera.

"Ausartu gara taldea ateraten baina justutxo gabiz jente aldetik, badago jentea entrenetan dabilena baina jokaturteko asmo barik, saiatuten gabiz horreek konbenziduten, ligea berme handiagagaz hasteko.

Dudan dagoan edonor be animau gura dogu etorri daiten taldera. Kontuan eukita esperientzia bakoa dala jente gehiena, ez daukagu helburu zehatzik aurten, gudan zentra eta taldea hobetutea da gure asmoa" adierazo deutso BEGITURI Jon Gurtubai taldeko kideak.

Hilaren 16an izan dira hastekoak ligea Zekorrek baina atzanean partidu hori atzeratu egin da eta Iruñean, La Unica taldearen kontra, jokaturteko dabe hilaren 23an Euskal Ligako 2. mailan.

San Txisme zelaia hartu dau bizi barriro, izan be, hasi dira ume eta gazteen entrenamentuak. Eguazten eta barikuetan 14 eta 12 urte azpikoak egoten dira, 18:00etatik aurrera. 10 urte azpikoak be egoten dira errugbia ikasten barikuetan, honek be 18:00etan.

Arratiko Zekorrek taldeak logotipo barria be badauka eta kamisetak eta jertseak ipini ditu salgai.

**FUTBOLA****Lidertzan dagoz andrazkoen Arratia A eta B taldeak eta gizonezkoen A taldea**

Arratiako nagusien futboleko bost taldeek hasi dabe ligea daborduko eta nahiko emoitza onak lortu dabez oin artean.

Erredakzioa

Arratia andrazkoen taldeak Urbietan jokatu eban Aurrera Vitoria taldearen kontra bere atzen partidua hilaren 10ean. Arratiak 1-0 irabazi eban partidua eta partiduko gol bakarra bigarren minutuan heldu zan Arrate Arrietak aurkariaren atezainaren huts galanta aprobetxau eta gero. Aurreko jardunaldian ostera 4-0 irabazi eban Mutilvera talde nafarraren kontra Igorren. Bost jardunaldiren ostean lider jarraitzen dabe sailkapenean 12 puntugaz Igorrekoek. Datorren partidua Tolosa taldearen kontra jokaturteko dabe, etxetik kanpo hilaren 17an, arrastiko 16:30etan.

Arratia B taldeak hilaren 10ean jokatu eban ligako lehen partidua, Lurraldekoaren Lehenengo Mailan dagoz eta 0-7 irabazi eban

Indautxuren kontra. Lider dago Arratia B taldea 3 puntugaz. Datorren partidua Plentzia taldearen kontra jokaturteko dau hilaren 17an Urbietan 20:00etan.

Gizonezkoen jagokienean, nagusien Arratiako hiru taldeek, Arratia A, Arratia B eta Lemoako Harrobik, zapatuan, hilaren 9an, jokatu ebezan euren partiduak.

Arratia A taldeak etxetik kanpo jokatu eban eta bana bardindu eban Trapagaran taldearen kontra. Aurreko partiduan 3-0 irabazi eban Arratiak Retuerto Sport taldearen kontra. Lau jardunaldiren ostean hiru partidu irabazi ditu Arratiak eta bat bardindu eta lider da 10 puntugaz. Arratiak Lekeitio taldearen kontra jokaturteko dau datorren partidua hilaren 16an Urbietan, arrastiko 18:15etan.

Arratia B taldeak Zorrontzako

taldearen kontra jokatu eban etxetik kanpo eta 1-4 irabazi eban partidua. Aurreko partidua husna bardindu eban Etxebarri Bren kontra. Hiru partidu jokatu ditu Arratia Bk eta bi irabazi eta bestea bardindu egin dau. Hiru jardunaldiren ostean Arratia hirugarren dago sailkapenean liderragaz bardinduta 7 puntugaz. Datorren partidua Berriz taldearen kontra jokaturteko dabe hilaren 17an, Urbietan zelaian arrastiko 16:00etan.

Lemoako Harrobi

Lemoako Harrobik bana bardindu eban Arlonagusian Amorebieta B taldearen kontra jokaturteko partidua. Atxulaur taldearen kontra jokaturteko aurreko partidua be bana bardindu eban Lemoako taldeak. Hiru partidu jokatu ditu momentuz, bat irabazi eta beste biak bardindu egin dauz. Lemoako Harrobi zazpigarren postuan dago sailkapenean 5 puntugaz. Datorren partidua Artibai taldearen kontra jokaturteko dau Markinan hilaren 16an 16:30etan.

**Arratiak Mutilvera taldearen kontra Urbietan jokaturteko partidua.**

ARRATIA/GORBEIALDEAN BIZI ZARA?
IRLANDAK ERAKARTZEN ZAITU!

HALAXE BADA,
GURE PROIEKTUAN SAR ZAITEZKE

Quiet Corner

Pertsona bat behar dugu asteburuetan 16 ordu lan egiteko eta ordu extrak egiteko ere jendea behar dugu.

✦ Bidali CVA: taqcorner@gmail.com
✦ Informazioa: 608 776 603

www.thequietcorner.eu
AREATZA

PELOTEA

Pelota Eguna ospatuko da Zeberion hilaren 17an

Mandoia Zeberio Pelota Kirol Klubak antolatu dauz hilaren 17an jokatu diran gazteen arteko eta lehen mailako اندrazkoen arteko partiduak.

Erredakzioa

Zubialdeko frontoian, udaletxe alboan, izango da jardunaldia, 10:00etan hasita. Prebenjaminetatik hasi eta kadete mailaraino, Zeberio pelota-eskolan jokatu daben gazteok izango dira goizeko protagonistak. Guztira lau partidu egongo dira, 12:00ak arte. Gero helduko dira lehen mailako pelotari اندrazkoak, binakako partidu bi izango dira. Laia Salsamendi eta Ane Mendiburu nafarrak jokatu dabe Txumuluxuetako Ainhoa Ruiz de Infante (Otxandio) eta Olatz Ruiz de Larramendiren (Beasain) aurka. Bigarrenak izango dira Leire Garai (Gasteiz) eta Enara Garminde (Laukiz), Nora Mendizabal

andoaindarraren eta Amaia Aldai dimoztarraren kontra.

Eusko Jaurlaritzak osasun larrialdia bertan behera itxi dauala eta, frontoiko edukiera guztia bete ahal izango da domekan. Halanda be, derrigorrezkoa izango da mosukoa.



MENDIA

Euskadiko Txapelketako lineako mendi lasterketea irabazi eban Onditz Iturbek

Urri bigarrenaren 3an jokatu zan Araian, 27,5 kilometroko eta 1.800 m desnibel positiboko Mitxarro Bira Trail

lasterketan Euskadiko Mendi Lasterketako Txapelketea, sano eguraldi txarragaz eta Onditz Iturbe izan zan txapelduna.



Onditz Iturbe.

Erredakzioa

Taldekako txapela be Iturbe igorretarraren taldearentzat izan zan,

Aiaramendiko korrikalariak taldearentzat. Gizonezkoetan, Aitor Aju-riak irabazi eban lasterketea.

Altzania Mendi Klubak antola-

tuta, lasterketeak, Azkorri Aratz Parke Naturaletik pasetan da eta Aratz (1.443 m) mendiaren tontorrean dauka bere punturik altuena. Gorbeia Suzien bigarren egin ondoren, Iturbe faboritua zan eta ez eban hutsik egin.

Oin, kros denporaldia hasiko da eta asfalto eta mendiko lasterketak egingo ditu Iturbek. Mendi lasterketearen denporaldia abendura arte luzatuteko asmoaren barri emon deutso BEGITURI. "Aurten sano ondo ibili naz eta urte oso oparoa izan da. Emoitzek asko lagundu deuste, bidez disfrutetearen alde ona. Gainera gorputzak be asko lagundu deusta, inongo min eta lesino barik, ezin keju. Oso pozik nago lortutakoagaz" adierazo dau Iturbek.

Mendi denporaldi ezin hobea

Mitxarro Bira irabazi eta Gorbeia Suzien-en bigarren egitea ez da salbuespena izan. Izan be, Euskadiko Trail Txapelketako Abadiñoko lasterketea, Galdameseko Mendi Bira eta Bastida Trail lasterketak irabazi ditu aurten; eta bigarren egin dau Talaimendi Orioko lasterketan, Etxarriko Triku Trailen eta Idiazabalgo Axari Trailen, besteak beste.

begitu

18 urte

arratia
ubide
zeberio

BAIETZ 50 LAGUN BARRI EGIN!

2021EAN EGIN ZAITEZ BEGITU-LAGUN! BEGITU-LAGUN EGITEAK SARIA DAUKA!

Begitu aldizkariaren asmoa eten barik hobetzea da, beti be Arratia-Ubide-Zeberio inguruko euskerazko aldizkaria euki daigun. Baina horretarako baliabide ekonomikoak indartu behar doguz, Begitu bere buruaren jaube izan eta etorkizunari bermez eutsi ahal izateko.

Horretarako **2021ean egin zaitez Begitu-lagun!** kanpaina abiatu gura dau Begitu aldizkaria argitaratzen dauan Zertu Kultur Elkarteak, eta helburua argia da:

Arratia-Ubide-Zeberio hamabostekari euskalduna babestuko dozu?

Oindino Begitu-laguna ez bazara, eta Arratia-Ubide-Zeberio hamabostekaria babestu gura badozu, bete egizu beheko formularioa eta bialdu honako helbidera:

Zertu Kultur Elkarte Herriko plaza 24. 48142 Artea.

Izen-abizenak: _____
Helbidea: _____
Telefonoa: _____ Helbide elektronikoa: _____
Kontu korrontearen zenbakia: ES _____
Aukeratu urteko kuotea: 35€ 55€ 75€

*Gainera Begituren produktu honek helduko jatzuz etxera doban.

Edo e-mailez, bialdu datuok: begitu@begitu.eus helbidera.

LEHIAKETEAK

Datorren urteko egutegia egiteko Argazki Lehiaketea antolatu dau Lemoako Udalak

Erredakzioa

Lemoako Udalak X. Argazki Lehiaketea antolatu dau argazkigintza bultzatzeko eta 2022ko egutegia egiteko. Izan be, herriko hamabi argazki aukeratuko dira Udaleko 2022ko egutegirako. Agazkion gaia "Lemoa" izango da. Argazkiak, formatu horizontalean eta modu digitalean, *kul-*

tura@lemoa.net helbidera bialdu behar dira urri bigarrenaren 31 baino lehen. Edonork hartu daiteke parte eta partaide bakoitzak argazki bakarra bialdu ahal dau. Epaimahaia, Udalak aukeratutako argazkigintzako adituek osotuko dabe eta saria, egutegian argazkia argitaratzeaz gainera, opari bat izango da. Sari banaketan Gabonak aldean izango da.

IKE

Antton Telleriaren *Nekatutak* bakarrizketea Lasarte Aretoran

Erredakzioa

Hilaren 23an, 19:00etan, Antton Telleria umoregilea eta EITBko kazetari eta aurkezleak, *Nekatutak* ikuskizuna ekarriko dau Lasarte Aretora.

Bertan, zuzentasunaren mugak esploratzen saiatuko da, bakarrizketearen izenetik hasita. "Barre egin arazoteko helburu bakar eta sekretuagaz, 'delikadua' izan daitekezan zenbait kolektibo aitatu dituzte: psikologoak, ETA, Ertzaintza... eta zelan ez, polemikoenak: irakasleak".

Antton Telleria bera da *Nekatutak* lanaren egilea eta Bidean Produkzioak-ek ekoiztu dau.

Umeentzako antzerkia hilaren 16an

Urri bigarrenaren 16an,

IKE

Sare sozialen gaineko tailerrak egingo dira gaztetxoentzat

Erredakzioa

Hamaika eta hamalau urte bitarteko umeentzako sare sozialen gaineko lantegiak egongo dira Igoerreko Kultur Etxean urri bigarrenaren 16an, 16:00etatik 20:00etara, eta 17an, 09:30etik 13:30era. Azkue Fundazioak zuzentzen dau Bziber egitasmoa eta Arratiako Udalen Mankomunitatearen lan-kidetzeagaz egingo da.

Lantegien helburua, gazteei euskerazko erreferenteak erakustea eta euskerazko ikus-entzunezko edukiak sortzean animetea da, sareko plataforman euskeraren erabilera

handitzeko. Gainera, sare sozialen erabilereaz jaubetea eta norberaren irudiak grabetearen ondorioez hausnartzea be bilatzen dabe lantegiok.

Lantegiotan, plataforma teknologiko batzuk aztertuko ditue; Instagram eta Tik-Tok, esaterako, eta ikus-entzunezkoak zelan sortu landuko dabe. Sarean bideogintzan dagozan euskerazko erreferenteak be ezetuko ditue.



LIBURUA

Juan Ulezuri, eleberria argitaratu dau Jürgen Langek

Erredakzioa

Jürgen Langek argitaratu dau *Juan Ulezuri*, nekazari baten memoriak, Zeberio herrian girotutako eleberririk historikoa.

Zeberio historiaren gaineko hirugarren liburua atera dozu, ezta? Oingoan eleberririk bat.

Landa eremuko historiaren gaineko hirugarren argitalpena da baina oingoan eleberririk formatuan. Bizkaiko herri txiki baten eguneroko bizi baldintzak gureganatzea gura neban, eta egokia iruditu jatan.

Oin dala hogeta bost urte tesia argitaratu neban: *Economía rural tradicional en un valle vasco*. Testuak idazkera berezia eskatzen eban, ikerketa ereduari jarraitzen eutsana. Holango liburuak ez dira irakurterrazak, baina mila aleko edizioa hilabete batzuen epean agortu zan. Badirudi zeberioztarrei arbasoen eta herriaren nondik-norakoek interes handia biztu eutseela.

Tesia hasikerea baino ez zan izan. Zeberioko artxibo historikotik lortutako informazioa itzela zan eta.

Eta orduan ebatzi zenuen bigarren liburua idaztea?

Bai. Hogeitau urte geroago *Préstamos en Zeberio* argitaratu neban. Bigarren liburu horretan erabilitako hizkuntza ulergarriagoa da, edonork ulertzeko modukoa izatea gura neban eta. 2008aren inguruan, mundu mailako krisialdi finantzarioa gertatu zan eta XVIII. mendean Arratian inozko gose krisi larriena gertatu zan, 1710etik 1714ra hain zuzen. Oin dala 300 urteko krisiaren ondoren goseteari urtenbide barri bat bultzatzeko nekazari iraultza hasi zan. Nekazaritza moderno horrek berrogeta hamar urteko loraldi garaiari sarbidea erraztu eutsan eta industrializazioaren oinarriak sortu. Gure garaiko krisi eta gure arbasoek bizitakoan artean paralelismoak topau nebazan.

Gure gizarte-jarduera ugariaren oinarrietan motibo ekonomikoak egoten dira. Esaterako, XVIII. mendean ezkontza bat batez be ekintza ekonomikoa zan eta ez soziala. Izan be, familiako ondasun osoa hurrengo belaunaldira pasetan zan. Zeberion lez, landa eremuko herri gehienetan antzeko gizarte ohitura eta egiturak egoten ziran. Horreetako askoren deskripzio zehatza Abel Ariznabarretak *Dima*. *Auzo bizitza* liburuan egin dau.

Ze idea garatu dozu hirugarren liburuan?

Aurreko bien datuetan oinarrituta, antxinako herriko bizi baldintzen deskribapena egiten da eleberririk historikoaren formatuan. Ikuspegi ekonomikoa patu indibidualagaz

buztartzeko nire inspirazio iturria Kepa Perez Urrazaren lanak izan dira.

Nor izan zan Juan Ulezuri?

Oin dala 300 urte Zeberioko biztanlea izan zan. Olatzar auzoan bizi, gustuko andreagaz ezkondu eta oso ezohiko bizimodua egin eban, bere andrea Franciscari esker irakurten ikasi ebalako. Sasoi haretan hori ez zan ohikoa.


Aurreko liburuan lez, andren rola azpimarratu gura izan dot. XVIII. mendeko eskuizkribuetan ez dira sarri agertzen andrak, baina funtzio eta pisu handia euki eban. Esaterako, badagoz andra kreditu emaileak. Andrek egindakoa edo euri gertatutakoa dokumentatuta dago dozena erdi kasutan gitxienez. Horreetako batzuk txertatu dodaz eleberrian: Maria Txikia, Catalina, Marina, Domenica, eta beste hainbat. Andrek berebiziko garrantzia daukie eleberrian, Zeberioko historian legez.

Lehen edo gaur, jente askok ez dau begi onez ikusten eredu orokorretik kanpo bizi dan personea eta Juan aparteko personea izan zan. Lehenengo ataleko kontaketa osaba Txominek Juaneri azaldutakoak dira; Juan 1726ko urtean jaio zan eta Arratian gertatutako gosete larriak 1710etik 1714ra iraun eban. Garai haretan, larrialdie azalpen bat aurkitzeko, orduko jenteak erlijinora edo mitologiara jotzen eban. Gehienek pentsetan eban gose krisia deabruen zigorra zala. Eta eleberrian danerik dago, bizitzan lez, sexua, delituak eta txalaparta!

Lehen atala hilketa batez hasten da.

Bai, 1714an auzoko neska baten gorpua topau eban mendian eta argi geratu zan Maria Txikia nonok hil ebal. Ondorioz, bizimodua goitik behera aldatu zan eta horrek segurtasun faltearen eragin eban hurrengo 34 urteetan gitxienez, hiltzailea nor izan zan jakin zan arte.

Handik aurrerako gertakizunak Juanek berak azaltzen ditu, haurtzaroko pasadizoak, nekazaritza zertan zetzan, zer ekoiztu eta zer jaten



zan... Baina gertaera eta aldaketa handiena maitasunagaz batera jatorko. Irakurten ikasitakoan bere pentsamoldea aldatu egiten da eta.

Baegoan libururik gure artean oin dala 300 urte?

Gitxi ziran eta garestiak, eta gainera liburuak eskuratzeko Bilbora joan behar zan Juan.

Baina Arratiako nekazari arruntak Bilbora joaten ziran?

Ez, baina Juan Ulezuri ez zan arrunta.

Bale, gure protagonistea berezia zan, irakurteko eta idazteko gai zan. Bere ikuspuntu propioak eukazan. Pozik bizi izan zan? edo bestela esanda, bizitza arrakastatsua izan eban?

Oso gatxa da horri erantzutea. Seguru da Juan Ulezuriren memoriak ez dirala istorio polit bat non danak pozik bizi diran biribilketa alegre baten. Juanen istorioa baragarria da eta ez barregarria. Edozelan be, eguneroko esfortzu, oztopo eta zailtasun guztien gainetik momentu onak be bizi izan ebazan, eta horreek osotuten dabe txalaparteari jagokozan zatiak. Horretarako, Pilar Castro Basauriko musikari aditu eta Edurre Euskal Dantza Taldeko kidearen laguntza izan dot.

Momentu baten, Juan, Arratiako merinoagaz batera lapur batzuen atzetik dabil.

Argi dago sasoi haretako bizitza ez zala guk uste bezain erromantikoa. Baegoan aberatsak eta txiroak, jente ona eta gaizkileak, eta hiltzaileak be bai.

Liburuan biolentzia matxistea be igarten da.

Biolentzia matxistea, baegoan bai. Bai andren kontra eta baita gizonen kontra be. Esaterako, gizon bateri "Oiloa" deitzean eutsien eta gizarte bizitzatik baztertu egin eban.

Baina Maria Angeles Larrea Sagarminagak, Deustuko Unibertsitateko irakasle zanak, esaten eban lez, sasoi haretako andren jardun gaitasuna gaur egunekoena baino indartsuagoa zan. Etxe barruko eta kanpoko lan arloak argi eta garbi bereizita egozan. Kanpoan gizonak etxea ordezkatzan eban eta, kargu publikoak bere gain hartu. Etxean, bai diruaren kudeaketea bai janiaren administrazioa, andreairekin txanpon batzuk eskatu behar eutsazan. Familiak babes funtzioa eukan. Liburuan neskame baten bortxaketea agertzen da eta etxe-ko jaubeak bere ardurapean hartu eban neskamea bere alaba izan balitz moduan. Baserrian lan egiten eban guztiak familikoak ziran.

Non eskuratu daiteke Juan Ulezuri liburua?

Zeberion Ermitabarriko tabernan, Igorren Marrak paperdendan eta interneten be salgai dago, Bod argitaletxean. Argibide gehiago gura ezkeru, Juan Ulezuriren webgunean dagoz: <https://juan-ulezuri.jimdosite.com/> helbidean.

BERTSOLARITZEA

Zeanuriko bertso eskoleak ludotekan hasi dau aurtengo ikasturtea

Erredakzioa

Ikasturte barriari urri bigarrenaren 7an ekin eutsan Zeanuriko bertso eskoleak, baina interesa daukanak edozein momentutan hasi daiteke klaseetara joaten. Astean behin izaten dira, eguernetan, 19:00etan, debalde. Bertsoan ikasi gura ezker, irakasleagaz jarri behar da kontaktuan 615 717 445 telefonoan.

Edade guztietako jentek ikasi daike bertsoan, eta ume, gazte,

heldu zein zaharrak hasi daitezke bertan. "Gura dauanak atek zabalik daukaz. Ez da bertsoarako mailarik behar, idatziz zein bat-batean arituteko gogoia besterik ez. Bakotxa bere erritmoan, ezelango presino barik" azaldu deutso BEGIturi Eñaut Intxaurrega irakasleak.

Zeanuriko bertso eskolea

Zeanuriko bertso eskolea Eñaut Intxaurrega bertsolariaren proiektu personala da eta bera izan da beti eskolako irakaslea. Udalak

ixten deutse lokalak eta urteroko bertso-afaria eta urtaileko bertso jaialdia finantzian dauz.

Aurreko urteetan, Kultur Etxean izan dira eskolak baina aurten ludotekara aldatu dira, udaletxea obretan dagoalako eta pleno aretoa Kultur Etxera pasatu dalako.



hil eban ETak. Hamaika urte geroago, ezohiko eskaera bat jaso eban: bere gizona hil eban gizonetako batek beragaz berba egiteko eskatu eutsan Langraiz Okako espetxean (Araba), zigorra beteten egoaneko kartzelan, ETAgaz hartu-emonak eten ostean. Zalantzak zalan-tza eta atsekabe handia izan arren, Maixabel Lasak onartu egin eban aurrez aurre ikustea bere gizona izandakoa hil eban pertsona. "Mundu guztiak me-rezidu dau beste aukera bat", erantzuten dau Lasak galdetzen deutsienean zergaitik ebatzi eban berba egitea bere senarra hil eban gizonagaz.



deutsee bitzta Maixabel Lasak, ETak hildako Juan Mari Jauregi-aren alargunari, eta Ibon Etxezarreta, Jauregi hil eban ETako kide izandakoari.

Sinopsia

2000. urtean, Maixabel Lasaren senarra, Juan Maria Jauregi

KOTXEPIN

Euskelele bidaiaria eta Kolorez jantzia Kotxepin Kultur Etxean



Erredakzioa

Euskelele bidaiaria, familientzako ipuin musikatu eskainiko dabe Euskal Barrokensemble eta JK Igerabidek hilaren 22an, 18:30ean, Lemoako Kotxepin Kultur Etxean. Hurrengo egunean be, hilak 28, 18:00etan, Antton Aranburu eta Lorena Martinen ipuinak eta musikea buztartzen dauzan beste ikuskizun bat, *Kolorez jantzia*, ikusteko eta entzuteko aukerea eukiko dabe 3 eta 6 urte bitarteko umeek.

Euskal Barrokensemble antxinako musikan, klasikoan eta herriko musikan espezializauta da-

goan taldea da. Enrike Solinisek sortu eban 2006an, musikariak aldatu egiten dira eta erreperitorio handia daukie gustu eta edade guztietarako. Sei urtetik gorako umeentzako ipuin musikatu eskainiko dabe Lemoan.

Antton Aranburu eta Lorena Martinen *Kolorez jantzia* ipuin kontaketa musikatuan, Kamila zebrak eta Perli otsoak desbardintasunak dakarren aberastasuna eta baliok landuten dabez, aniztasuna gure gizartearen osagai abesgarri moduan ulertuteko. Sarrerak online erosi daitezke Lemoako Udaleko webguneko kultura.lemoa.net/sarrerak/ atalean.

ZINEA

Iciar Bollainen Maixabel pelikulea ikusgai Igorren

Erredakzioa

Hilaren 31n, 19:30ean, Donostiako Zinemaldian Euskal zinemaren Irizar saria jaso eban pelikulea ikusteko aukerea egongo da. Benetako gertaeretan oinarrituta, Blanca Portillo eta Luis Tosar aktoreek emoten

DUNBA

Zulaibar aurrera begira

Xabier Aldama. Zulaibar Lanbide Ikastegiko zuzendaria

Arratiako Zulaibar Lanbide Ikastegiak Arratia eskualdeagaz daukan konpromiso historikoa barriztu dau, hainbat hamarkadatan eskualdeko enpresa sarea dinamizatu, sustatu eta garatzeko tresna moduan izan dauan zeregina indartzeko plan estrategiko bariaren bidez.

Zulaibarretik konpromisoa barritzearen aldeko apustua egin dogu, alde batetik, personakazko konpromisoa, proiektuaren arretaren ardatz diralako: ikasleak, Zulaibarko hartzaile eta protagonistak diralako, eta proiektua osotuten daben profesionalak, jardueren benetako dinamizatzailerik eta bideratzaile diralako. Eta beste alde batetik, enpresakaz, eurei begira jartzen saiatuz, profesionalak zen-

trotik atera gaitazan eta Zulaibarren jardueraren hartzaile nagusitzat hartzea bultzatuz. Horretarako, enpresakaz daukaguzan loturak indartzen saiatu behar gara, Zulaibar proiektua berezko zerbait balitz moduan sentidu dagien, eta zentroa eta azpiegiturak enpresaren jarduerak garatzeko hedapen eta espazio gisa ikusi dagiezan, beste enpresa batzukaz lankidetzan jarduteko eta, barritzeko eta esperimenterako aukerak handituz.

Gainera, Zulaibarren, LHko beste zentro batzukaz, udalakaz eta administrazio publikoagaz, tokiko erakundeakaz eta enpresakaz lankidetzan jarduteko estrategia bat era proaktiboan garatzearen alde egiten dogu, estrategia propioak indartu eta norbanakoen mailan izango gendukezanak baino anbizino handiagoko helburu batzuk planteetako. Hori guztia egiteko,



metodologia propioa garatu dogu. Metodologia hori erronkan oinarritu da, tresna pedagogiko gisa, eta ikasleei taldean lan egiteko erabakimena eta gaitasuna emateko esperientzia gisa. Hori gizartearen eskakizun gero eta handiagoa da, eta gero eta beharrezkoagoak dira gaitasun eta jakera horreek.

Erreortzu horren bidez, enpresen beharrei erantzun gura deutsegu Zulaibarretik, eta ikasleei *soft-skills* diralakoak sendotzearen

eta prestakuntza lerro elektriko eta metalmekaniko barrituak garatzearen aldeko apustua egin gura dogu. Horregaz batera, automatizazioaren eta robotikearen aldeko apustua egin dogu, enpresek aurre egin behar deutsean lehiakortasuna hobetuteko erronkei erantzuteko. Gainera, pertsonen integrazioari eta arretari buruz ointsu hasitako bidea indartuko dogu, eremu horretako joera barriakaz bat datozen abangoardiako

teknologiakaz.

Hori guztia posible egiteko, Zulaibarretik, eta lankidetzan publiko-pribaduaren estrategiaren barruan, azpiegiturak eta ekipamendua barritzearen aldeko apustua egin dogu, enpresek behar dabenagaz bat datorren abangoardiako prestakuntza emon ahal izateko, eta teknologiak eta prozesuak probatu eta probetako behar dan moduan hornidutako espazioa daukiela bermatzeko.

Garai honetan, Zulaibar eskualdearen oparotasunerako eragile giltzari gisa eratzekoa da, dagozan sektore ekonomikoak indartuz eta barriak bultzatuz, enpresen, administrazioen eta eskualdeko pertsonen ezinbesteko aliadu izanda.



AGENDEA

URRI BIGARRENAK 15
ARANTZAZU

17:00etatik 19:00etara, astelehenetik barikura Udal Liburutegia zabalik.

AREATZA

Udagioien osoan zehar, onddoen garrantzia goraiatzeko hainbat aholku emongo dira Gorbeia Parke Naturaleko atsedenguneetan.

ARTEA

Hilaren 26an egongo dan oin eta behatzen estetika zerbitzurako hitzordua hartzeako epea zabalik. Udaletxean eta 94 673 92 05 eta 94 673 92 17 telefonoetan.

BEDIA

16:30etik 19:30era, liburutegia zabalik, astelehenetik barikura.

16:30etik 19:00etara, hilaren 22ra arte, *Udan be irakurten* argazki erakusketea, liburutegian.

Enplegua bilatzen dabizenei lagunduko deutse Udal Liburutegiak kurrikuluma eroan ezkerro, ekintzak heldu ahala bideratzen.

Bediako andren omenez puntua egin arbola bat janzteko. Etxetik zein eguaztenetan, 16:30etik 19:00etara eskoletan alkarregaz bufanda handia egin arbola baten ipinteko. Urtailearen 14ra arte bakotzak egindako zatiak batuko dira; urtailearen 19tik martiaren 2ra arte, eskoletan batu zatiak josteko; martiaren 8an, aukeratutako arborean ipiniko da bufanda.

DIMA

19:00etan, Dimako liburutegiak antolatuta, Endika Lahaineren *Otsa-lobo* liburuaurren aurkezpen repeatua Abaroan. Izena aldeztu aurretik emon kultura.dima@bizkaia.org helbidean edo 685 759 997 telefonoan.

IGORRE

14:00etatik 21:00etara, astelehenetik barikura liburutegia zabalik. Eguaztenetan 12:30etik 21:00etara.

Urri bigarrenaren 31ra bitartean Bonodenda kanpaina martxan. AMEK eta Igorreko Udalak bonu kopurua 1.800etik 3.000ra igo dabe. 16 urtetik beherakoak be bonuak eskuratu ahal izango dabez.

LEMOA

Oinezbusa, eskolara ikasleak oinez joateko dobako begirale zerbitzuan izena emoteko epea zabalik hilaren 24ra arte. Zemendiaren 2an hasiko da zerbitzua. Izena www.lemoa.net helbidean emon. Informazio gehiago gizartegintza@lemoa.net edo 688 661 477 telefonoan.

08:00etatik 21:00etara, astelehenetik domekara Kotxepineko ikasgela zabalik.

16:30etik 19:30era, liburutegia zabalik astelehenetik barikura Kotxepin Kultur Etxean.

Zemendiaren 21ean egingo dan Lemoax Trailen izen emotea zabalik rockthesport.com eta kronoak.eus webguneeetan.

Hilaren 31ra arte, aurkeztu daitezke argazkiak Lemoako X. Argazki Lehiaketarako kultura@lemoa.net helbidean. Gaia: Lemoa.

Abenduaren 12ra arte, Egunean Behin tribial estiloko joko digitalean hartu daitezke parte. Lemoaztarrak batu ahal dira lehiaketara


aplikazioan 204F9E kodea sartuta.

ZEANURI

18:30ean, *Irakurketa feminista* tailerra Uxue Alberdigaz. *Dendaostekoak*. Kultur Etxean.

ZEBERIO

18:30ean, Tor Magoaren *Amarru* ikuskizuna. Eskola zaharreko txokoa. Austarrik antolatuta.



Hilaren 31ra arte Zeberio II. Argazki Lehiaketeta. Ura eta egurra gai nagusi moduan hartzean dabezan argazki horizontalak, ez panoramikoak www.zeberio.net gunera igo edo info.zeberio@bizkaia.org helbidera bialdu behar dira. Gai bakotxean boto gehien jasoten dauzan argazkilariak bi personentzako bazkaria jasoko dau sari lez.

17:00etatik 19:00etara, astelehenetik barikura liburutegia zabalik.

Hilaren 21era arte, *Kriminologia* tailerrean izena emoteko epea zabalik. Udaletxean.

URRI BIGARRENAK 16
ARANTZAZU

Sanfaustoak. 09:00etan, Mugarri

Modaren gaineko jantza
ikuskitzuna Lasarte Aretoan

Hilaren 30ean, 20:00etan, Adriana Bilbaoren jantza konpainiak, *Éclat. Eztanda egiten duen gorputz batetik askatutako atala* ikuskizuna eskainiko dau Igorreko Lasarte Aretoan.

Ikuskizunak XIX. mendetik hasita eta XX. mendearen zehar andrazkoen modan izandako mugarri batzuk erakusten ditu, oinarri flamenkoa daukan musika eta jantzearen bitartez, Adriana Bilbao eta Mikel del Valle jantzarien eskutik. Eurakaz, Elena Morales (cante flamenkoa), Jose Almarha (gitarra), Victor Guadiana (bibolina eta gitara elektriko) eta Epi Pacheco (perkusioa) egongo dira. Lan honetan garrantzia handia daukien erropak Fran Lopez del Cerrorenak dira eta Adriana Bilbao da obrearen egilea.

Bira plazatik hasita, 10:30ean, hamaiketako Industrialdean; 14:30ean baba-jana, tikeak herriko tabernan eta Monteronean salduko dira. Bakotzak bere platera, basua eta koilara-sardeskak eroan behar ditu; 17:00etan, Ein Go taldearen kontzertua plazan. Euria egiten badau, frontoian.

ARTEA

11:00etatik 14:00etara, Gorbeia ekoizle eta artisauen azokea; 11:00etatik 12:30era, Artea ezagutzen bisita gidatua, erreserbak gorbeiaeuskadi.com webgunean; 12:30ean, 13:00etan eta 13:30ean, dastaketea plazan: Etxebarria baserriko ogia eta ezia eta Ugabe txakolina; 12:30ean, Arratia Kantuz, goiz musikala; 17:00etan Guikuri moda desfilea Ekomuseoan; 19:00etan, *Izan bagara* folk musika eta herrikirol ikuskizuna frontoian. 11:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 20:00etara, Gorbeia informazio puntua, Guikuri bus moda salmentea eta haurrentzako sormen puntua.

IGORRE

16:00etatik 20:00etara, Azkue Fundazioak antolatutako sare sozialen gaineko Bziber lantegiak Kultur Etxean.

17:30ean, Paraiso antzerki konpainiaren *Leihoak 2* eta 6 urte bitarteko umeentzako ikuskizuna Lasarte Aretoan.

URRI BIGARRENAK 17
ARANTZAZU

Sanfaustoak. 09:30ean, Arantzazuko txistulariak; 10:00etan, Gure Azoka, Arratiako artisautzea, erropea eta bigarren eskuko liburuak eta musika; 12:00etan, Imanol Ituño magoaren *Magia parrastan* ikuskizuna. Plazan, euria bada, frontoian.

IGORRE

09:30etik 13:30era, Azkue Fundazioak

antolatutako sare sozialen gaineko Bziber lantegiak Kultur Etxean.

17:00etan, zinea, *Peter Rabbit 2: A la fuga*; 19:30ean, *Las cosas que decimos, las cosas que hacemos* Lasarte Aretoan.

AREATZA

08:00retan, Lamino Kirol Klubak antolatutako mendi urtekerea Gongra (1.062 m)-Araza (1.139 m)-Berretin (1.221 m)-Pagazuri (1.280 m)-Arroriano (1.343 m). 16-18 km, 1.000 metroko desnibela. Eleizan.

DIMA

13:00etan, Ados Jazz Band Antzasti Euskaldunon Etxean. Artaun auzoan.



ZEBERIO

07:30ean, Austarri Mendi Taldeak antolatutako urtekerea Cubilla-Umion (1.437 m)-Frias.

URRI BIGARRENAK 18
LEMOA

Oingabiz Lemoa jarduera fisikoa sustatzeko programea. 09:30etik 11:00etara, astelehenetan ibilaldi gidatuak helduentzako Gudarien parkean; 11:00etatik 13:30era, orientazio zerbitzua Arraibin.

URRI BIGARRENAK 19
BEDIA

18:00etan, Lur Korta ipuin kontalaria liburutegian.

URRI BIGARRENAK 20
LEMOA

Oingabiz Lemoa jarduera fisikoa sustatzeko programea. 16:30etik 17:15era, eguaztenetan, DBHkoentzako kiroldegian, izena aurretik emon; 17:30etik 18:30era, edadekoentzako kiroldegian, izena aurretik emon.

URRI BIGARRENAK 21
ZEANURI

17:30etik 19:30era, *Deskubritu gaitzen ahalduzaren bidean* tailerra Aitziber Hormazaren eskutik Kultur Etxean.

URRI BIGARRENAK 22
ARTEA

18:00etatik 20:00etara, Ilgoran Jabekuntza Eskolako *Agroekofeminismo* tailerra Kultur Etxean.

LEMOA

18:30ean, Euskal Barrokensemble eta JK Igerabideren *Euskelele* bidaiaria familientzako ipuin musikatu Kotxepin Kultur Etxean.

URRI BIGARRENAK 23
AREATZA

Ondarearen Europako Jardunaldiak: Saldropo eta Otzarreta inguruan bisita gidatua, zeinu hizkuntza itzultzaile baten laguntzeagaz.

ARTEA

10:00etatik 14:00etara, Ilgoran

Jabekuntza Eskolako *Agroekofeminismo* tailerra Kultur Etxean.

IGORRE

20:00etan, Antton Telleriaren *Nekatutak* bakarriketea Lasarte Aretoan.

LEMOA

Ganzabal Mendi Taldeak guraso alkarteagaz antolatuta umeentzako mendi urtekerea Zumeltza-Saibi-Urkiola.

URRI BIGARRENAK 24
IGORRE

17:00etan, zinea, *D'Artacan eta hiru mosketakurrak*; 19:30ean, *Chavalas* Lasarte Aretoan.

URRI BIGARRENAK 25
ARTEA

Zemendiaren 2ra arte, Bilboko Arte Ederretako Museoaren BBK Artearen ibilbidea erakusketea plazan.

URRI BIGARRENAK 26
BEDIA

18:00etan, berbaldia *Testamentuak* liburutegian.

URRI BIGARRENAK 27
ARTEA

18:00etan, Arteko guraso eskoleak antolatuta, Roberto Agudoren berbaldia *Elementos básicos de la convivencia* Kultur Etxean.

URRI BIGARRENAK 28
LEMOA

18:00etan, Antton Aranburu eta Lorena Martinen *Kolorez jantzia* 3 eta 6 urte bitarteko umeentzako ipuin kontaketa musikatu Kotxepin Kultur Etxean.

ZEANURI

17:30etik 19:30era, *Deskubritu gaitzen ahalduzaren bidean* tailerra Aitziber Hormazaren eskutik Kultur Etxean.

URRI BIGARRENAK 29
ARTEA

18:15ean, umeen Irakurle Txokoa: Alaine Agirreren *Hau ez da zoo bat*; 19:15ean, nagusien Irakurle Txokoa: Bertol Arrietaren *Gezurra berdadera*. Kultur Etxean.

BEDIA

19:30ean, Arimen gaua *Deabru beltzak* ikuskizuna.

URRI BIGARRENAK 30
ARTEA

17:30etik 19:30era, eskulana: papelezko kalabaza bildurgarria ludotekan.

DIMA

18:30ean, Bizitza Arratia taldeak antolatuta, COVIDari beste begirada bat. Raket Amigo, Osagun Psikologoa eta psikoneuroimmunologian aditua eta Estibalitz Vegas Psikologoa hurren prebenzinoan, adituen berbaldia *Haurrak eta Covid* Abaroa Aretoan. Izena aurretik emon bizitzaarratia@gmail.com helbidean.

URRI BIGARRENAK 31
AREATZA

19:00etan, Gau Beltza. Cuambaos trio taldearen kontzertua The Quiet Corner tabernan.

ARTEA

17:00etan, zinea, *Ninja a cuadros 2: misión Tailandia*; 19:30ean, *Maixabel* Lasarte Aretoan.

KOMIKIA

Kailo Ren



IRAGARKI LABURRAK

DANERIK

MINTZAPRAKTIKA SAIOAK

Mintzapraktika saioak euskeraz eta ingelesez bakarka zein taldeka (25 urtetik gorako lagunentzat). Telefonoa: 635 750 097.

LANA

INGELES IRAKASLE BILA

Ingelesa dakian persona baten bila nabil, batxilergoko lehenengo mailan dagoan ikasle bateri klaseak emoteko. Interesdunek deitu 620 607 952 telefonora.

SALTZEAN DOT

Soinu ekipoa salgai: Berhinger Xenyx 2442 FX mahaia, bozgorailu bi autoanplifikatuak Berhinger B300 eta hanka bi. Dana, 400 euroan saltzean dot. Interesdunek deitu 657 707 725 telefonora.

LAN BILA

Adineko personak zaintzean ibilitako andra kubatarra lan bila dabil. Barruko neskame edo bestela. Telefonoa 688 849 089.

SALTZEAN DOT

Ezcaray-ko arasea salgai, egoera eta prezio

sano onean. Altuerea 2,10 metro, zabalera 2 metro eta sakonera 40 zentimetro. 615 708 238.

SALTZEAN DODAZ

Fagor etxeko labadorea, Class A+A, LF-1106, 1.000 erreboluzino, 6 Kg. 50 euroan, eta Aspes etxeko hozkailua, Ideal modeloa, goikaldean izozkailua daukana eta behekaldean hozkailua, 100 euroan. Telefonoa: 616 634 306.

KLASEAK EMOTEN DODAZ

3. eta 4. DBH eta Batxilergoko ikasleentzako matematika, fisika, kimika, teknologia... klaseak eskaintzen dira Igorren; institutu ondoan. Informazio gehiagorako deitu edo WhatsApp-a bidali 608 381 984 zenbakira.

Zezer saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat begitu@begitu.eus helbidera. Mezuak doban dira.

Begitu-lagunen txokoa

Zenbaki honetako saridunak:

1 Igorreko Kultur Etxeak emondako bina **sarrera Maixabel** filma ikusteko.

Edorta Zurinaga (Zeanuri)
Maite Bernaola (Artea)



2 Igorreko Kultur Etxeak emondako bina **sarrera Nekatutak** bakarrizketarako.

Argiñe Larrea (Dima)
Maite Artabe (Areatza)



begitu

Zerturen argitalpenak jasoko dozuz, zozketetan sartuko zara. BEGITUK 19 urte eta ehundaka lagun.

94 673 90 13/649 979 115 | www.begitu.eus | begitu@begitu.eus

umean medu
sem
@-IG
Agirre Lehendakaria, 31 • 48140 IGORRE
Tfnoa: 94 631 92 96 • semedu@hotmail.com

KIRRU
ILEAPAINDEGIA
ROSANA eta ROSER
SABINO ARANA 36
IGORRE
Tlf. 94 631 92 00

BIXER
TABERNA
Beko kalea, 2 - Telf. 94 631 73 65 - VILLARDO

begitu

ZUZENBIDE
ASEGURUAK: AUTOAK ETXEBIZITZAK
AHOLKULARITZA: LAN ZUZENBIDEA ZERGAK KONTABILITATEA
DENDAK ISTRIPUAK BIZITZA...
Tlf. 94 673 71 41 - 94 673 70 55 - 94 612 11 96 - Faxa 94 612 11 96
Sabino Arana 3. behea - Igorre (Bizkaia)

Pinturas Arantia
Javi Morato
Tel. 628 443 992

Jose Luis Corbacho
pintura lanak
Sabino Arana, 3. 3a
Igorre 48140 Bizkaia
94-673-70-87
609-79-40-54

NAIARA HORTZ KLINIKA
Lehendakari Agirre, 19
48140 Igorre
94 631 52 26

begitu
eus

25 urte

pertsonen arteko
zubiak eraikitzen



FAMILIA BITARTEKARITZAKO
ZERBITZUA

BILBON, DONOSTIAN, VITORIA-GASTEIZEN ETA TOLOSAN

www.euskadi.eus/familibitartekaritza

Euskadi, auzolana

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTU AURTIA
ETA GABETE POLITIKAREN BILBA

DEPARTAMENTO DE EDUCACION,
ARTIA Y POLITICA ECONOMICA

GURE AZOKA

ARANTZAZU

URRIAK 17 DOMEKA
10:00-14:00

ARRATIKO ARTISAUTZA, ARROPA/TEXTIL BARRIA,
BIGARREN ESKUKO MUSIKA ETA LIBURUAK

12:00 MAGOA



ARANTZAZUKO JAI BATZORDEA

LEMOA
946 31 44 06
ZABAL@ALKIZABAL.NET

ALKIZABAL

LEMOA - BASAURI
www.alkizabal.net

BASAURI
946 51 05 99
BASAURI@ALKIZABAL.NET

MAKINEN ALOKAIRUA ETA SALMENTA

